85

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

2014ko uztaila



IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ELKARRIZKETA

Goio Monreal: *«Foruak euskal identitate jakin bat konfiguratu zuen»*

ERREPORTAJEA

Umoreaz, umore onean

EZTABAIDA

Digitalizazioaren mamua, etorkizuneko erronka



GRAMATIKA

Puntuazioaren oinarrizko arauak (3): esaldi barneko puntuazioa (eta 2)

JUAN GARZIA

GIZA BALIABIDEAK

MOOCen sasoia, etengabeko formakuntza librearen aroa

GORKA JAKOBE


EUSKARAZ
©belatz

85. zk. • uztaila • 2014

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

Zuzendaritza:
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:
Xabier Amatria

Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea:
Itxaropena S.A.

Ilustrazioak: Concetta Probanza

Zenbaki honetako lankideak:
Begoña Aierdi, Xabier Amatria, Jon Arizkun, Pablo Arriola, Urtzi Barrenetxea, Miel A. Elustondo, Irene Fernánadez, Juan Garzia, Goiatz Labandibar, Inaxio Lopez de Arana, Luma, Urtzi Odriozola, Maite Orue, Gorka Jakobe Palazio, Nerea Pikabea, Mikel Santos, Manu Viota, Xabier Yurramendi, Izaskun Zuntzunegi

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkarian argitaratutako artikuluak berridatz daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikuluak nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulu eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

ISSN: 1576-5563
Legezko Gordailua: BI-1141-93

Egilea: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea
Donostia-San Sebastián 1,
01010 VITORIA-GASTEIZ.
Tel. 945 01 76 37
www.ivap.euskadi.net

Aurkibidea

2 *Marrazkia*
MIKEL SANTOS, BELATZ

4 *Pertsonaia*
Anne Etchegoyen
NEREA PIKABEA

5 *Informazio eta komunikazioaren teknologiak*
Sare sozialetako deliturik ohikoenak
MANU VIOTA

7 *Elkarrizketa*
Goio Monreal Zia: «Foruak euskal identitate jakin bat konfiguratu zuen»
MIGUEL A. ELUSTONDO

13 *Eztabaida*
Digitalizazioaren mamua, etorkizuneko erronka
MAITE ORUE

18 *Leihatila*
Interinez gauaren errege
INAXIO LOPEZ DE ARANA

[ARIKETAK]

19 *Normalizazioa*
Euskarazko azpitituluak, mundua ikusteko betaurreko
URTZI ODRIOZOLA

20 *Giza baliabideak*
MOOCen sasoia, etengabeko formakuntza librearen aroa
GORKA JAKOBE PALAZIO

22 *Erreportajea*
Umoreaz, umore onean
JON ARIZKUN

27 *Leihatila*
Felice
GOIATZ LABANDIBAR

28 *Osasuna*
Osasuneko App-ak gure bizitzaren zati bihurtuko dira
PABLO ARRIOLA

30 *Gramatika*
Puntuazioaren oinarrizko arauak (3): esaldi barneko puntuazioa (eta 2)
JUAN GARZIA

32 *Hitzez hitz*
Xakea eta itzultzeko estrategiak
XABIER YURRAMENDI

34 *Denbora-pasak*

Anne Etchegoyen, abeslaria:

«Mezuak abestietan daude, askotan azalpenik ez da behar»

Nerea Pikabea
Kazetaria



Euskal Herria eta Paris artean bizi da abeslari baxenabartarra. Donapaleun sortua duela 34 urte, Frantziako merkatuan indarrez sartu dira bere kantuak, eta betiko euskarazko doinuak erdal mundura eramatea lortu du Baionako Aizkoa gizonen abesbatzaren laguntzarekin. Mikel Laboa zenaren Txoria txori abestiaren bertsioa 400.000 aldiz ikusia izan da Youtuben. Bere ahots fin eta landuak eta merkataritza ikasketek balio izan diote bere lana ezagutarazteko.

Noiz hasi zinen kantuarekin hartu-emanetan?
Nire amak Donapaleuko Elhea helduen abesbatzan abesten zuen, eta haur abesbatzan hasi nintzen zortzi urterekin. Ahotsaren teknikarekiko zaletasuna sortu zitzaidan. Kantu txapelketetan ere parte hartzen nuen.

Noiz erabaki zenuen kantuan segitzea?
Kantu klasikoa ikasten hasi nintzen Baionako kontserbatorioan hamasei urterekin. Kantuaren teknika ikasteko eskola ona da kantu lirikoa. Bi urteren ondoren Bordelen segitu nuen beste urtebetez ahotsa lantzen ikasten. Iparraldera itzuli nintzenean, Merkataritza ikasketak egin nituen hiru urtez.

***Les Voix Basques* izeneko diskoa kaleratu zenuen iaz Aizkoa abesbatzarekin. 60.000 ale saldu dituzue Frantzian.**
Urrezko Diskoa jaso genuen 50.000 ale saldu genituelako. Askotan azaldu gara Frantzian estatu mailako komunikabideetan. Sony etxeak, ordea, esaten digu zailagoa dela Espainiako merkatuan sartzea.

Euskal abeslari askok sarritan abestu dituzten kantuak daude disko horretan, *Txoria txori* esate baterako. Euskal abeslari horiei, ordea, asko kosta izan zaie erdal mundura ailegatzea. Nola lortu duzu zuk?
Arrazoi bat baino gehiago daude. Musika ahalik eta zabalena egiten ahalegindu gara, entzule mota desberdinengana ahalik eta gehien iristeko. Sony etxearekin lan egin dugu; etxe horrek ahalmen handia du ekoizpenerako eta beste batzuk baino baliabide gehiago ditu. Horrez gain, gure diskoan badira kantuak frantsesez ere. Gainera, uste dut mezuak abestietan daudela, askotan azalpenik ez da behar. *Txoria txori* abestian, adibidez, hitzetan dena esana dago. Kantu hori egunean sei aldiz eman zuten Frantziako estatuko irratietan bi hilabetez. Beharbada, euskal artisten munduak pixka bat ireki beharra dauka.

Hegoaldean, ordea, musikariak saiatu dira langa hori gainditzen, baina batzuetan ez dute horrelako oihartzunik izan.
Beharbada errazagoa da Frantzian sartzea; uste dut hemen ez dagoela Espainian dagoen era horretako mugarik. Horrez gain, marketin estrategiek ere zerikusia dute. Sony etxeak lan handia egin du horretan.

Beste disko bat prestatu duzue, ezta?
Ekainaren 2an atera zen diskoa, *Berriz* izenekoa. Abesti gehiago daude frantsesez. Horren ondorioz, jende gehiagorengana iritsiko da gure lana eta jende gehiagok entzungo du euskarazko musika. *Aldapeko*, *Maitia nun zira*, *Xalbadorren heriotzean*, *Horra hor goiko*, *Aita gurea* eta horrelako abestiak sartu ditugu.

Etorkizunari begira, zer darabilzu buruan?
Hegoaldeko jendearentzako disko bat prestatzen ari gara urte bukaerarako. Ekoizpen enpresa bat ere badut eta horrekin jarraituko dut. Garrantzitsuena da norberaren ikuspuntu bera duen jendea izatea inguruan. Musikatik bizitzen jarraitu nahiko nuke, abeslari eta ekoizle gisa. Ikuspuntu irekiarekin beti, musikan ez baitago mugarik. ■

Sare sozialetako deliturik ohikoenak

Manu Viota
Informazio Teknologikoetako Delituen Atal Nagusiko burua (Ertzaintza)

Sare sozialak pizgarri handia bilakatu dira herritarrek Internet erabil dezaten. Haien bidez, berehalako harremana izan dezakegu gure gustu, zaletasun edo interes bereko beste pertsona batzuekin, eta horretan oinarritzen da, hain zuzen, haien arrakasta. Gainera, teknologia mugikorrek sareon erabilera bultzatu dute, asteko egun guztietan konektatuta egoteko aukera ematen baitute, gau eta egun.

Komunikatzeko era berri horren onurak ukaezinak diren arren, aldi berean, delitugileak aprobetxatzen ari dira teknologia berriek eskaintzen dizkieten aukerez, pagotxa moduko bat bilakatu baitira haientzat.

Artikulu honetan, sare sozialak direla-eta antzeman diren delitu sarrienak azaldu nahi ditugu, gainetik bada ere. Ikuspuntu partzial da, bai, ez baitugu sare sozialekiko izua sortu gura, erabat kontrakoa baizik: zenbat eta hobeto ezagutu zerbait, orduan eta errazagoa izaten da hartaz arrisku barik gozatzea.

Identitatea ordeztu. Delitu hori, normalean, ez da bere horretan bakarrik agertzen, beste batzuekin batera baizik. Zertan da, bada? Besteekiko harremanetan abantailak lortzeko asmotan, gezurrezko identitate bat erabiltzean. Segun eta nola garatzen diren, zenbait azpi-mota daude, delitu-maila desberdinetakoak:

- **Profila asmatu.** Ezaugarri oinarrizkoenen gainean gezurra esan eta «neurrira» egindako gezurrezko profil bat sortzea. Normalean, ez du gaitzespen penalik izaten, haren atzetik beste delituzko jokabideren bat egon ezean.
- **Parodiatu edo omendu.** Pertsonaia famatuen gaineko parodia egin ohi da, eta profilari erreparatuz gero, «txantxetakoa» dela ondorioztatu daiteke.
- **Identitatea erabat ordeztu.** Pertsona ordeztuaren gaineko datu guztiak erabilita profil bat sortzean datza. Kasu horietan ere, zaila da identitatea ordeztutzat hartzea. Izan ere, epaitegiek halakotzat jo dezaten, kasuan kasuko pertsonaren identitatea erabat ordeztu behar da bizitzaren arlo guztietan, edo, bestela, ordeztuak bakarrik egiten dituen jardueretan. Dena den, agiri-faltsutzearen delitugiletzat jo, eta zigortzea lortu da. Kontua da, profil batean alta ematerakoan, baldintzak onartzen direnean, erregistratzen ari denaren eta plataformaren jabearen arteko kontratu bat sinatzen ari dela.
- **Profila ostu.** Hori gertatzen da, baldin eta pertsona bat profil batean sartzen bada, hori egiteko baimenik izan barik, eta profil horretaz jabetzen bada. Ez dago inolako arazorik jokabide hori delitutzat jotzeko. Hori egiten duena mezu pribatuetara sartzen ari da, eta, horrenbestez, sekretuak ezagutaraztearen delitua egiten.

Irainak, kalumniak, derrigortzeak, eta abar. Delitu horiek guztiak gertatzen dira, hala edo nola, profilen arteko harremanetan. Gainera, zenbait sare sozialetan jokabide horiek gertatzeko aukera gehiago daude, iruzkinak modu anonimoan egiteko aukera ematen dutelako.

Iruzurrak. Sare sozialek jarraitzaile ugari dituztenez, oso erakargarriak dira delitugileentzat; beste pertsona baten plantak eginez gero, errazagoa baita biktimak oharkabetzea, hain erne ez egotea.

- Sarritan, honela jokatzen du delitugileak: mezu bat bidaltzen die kontaktuei, non diru-sarrera handiak dituen senide bat edo adiskide bat balitz bezala aurkezten duen bere burua, eta han azaltzen die bidaia bat egiten ari dela atzerriko herrialderen batean, eta diru eta dokumentazio guztia lapurtu diotela, eta, etxera bueltatu ahal izateko, mezuaren jasotzaileak diru-kopuru bat bidali behar diola. Etxera itzuli ostean bueltatuko omen dio dirua. Gainera, normalean gehitzen du telefono

mugikorra lapurtu diotela, eta, horregatik, ezin diela zuzenean deitu. Ordeztutako pertsona diruduna dela kontuan hartuta, biktimak dirua bidaltzeko prest agertu ohi dira.

- «Amodiozko iruzurrak» ere badira. Kasu horretan, delitugileak neska baten itxurak egiten ditu. Normalean, jatorri eslaviarreko neska bat bezala aurkezten du bere burua: eder-ederra, kultura handikoa, eta abar. Eta biktimarengana jotzen du amodio-harreman bat hasteko. Handik oso denbora gutxira (hori bera ere susmagarri samarra da), neskak biktima bisitatzeko interesa erakusten du, eta bidaia-gastuak ordain diezazkion eskatzen dio. Biktimak hori egitea onartuz gero, etengabeko diru-galera hasiko da, besteak gero eta gehiago eskatuko baitio zenbait aitzakia erabilita, betiere dirua gero itzuliko diola aginduta, hala nola herrialdetik irteteko bisatua ordaintzeko, hipoteka kitatzeko etxea saldu aurretik, gurasoen ospitaleratze-aldia pagatzeko. Azken finean, aitzakia-parrastada bat, biktimari gero eta diru gehiago kentzeko. Kanpotik ikusita, aitzakiok xelebre samarrak badirudite ere, funtzionatu egiten dute. Gizon bati 27.000 euro ostu zizkioten metodo hori erabilita: horra kasurik larriena.

***Grooming*a.** Pertsona heldu bat Internetez baliatzen denean adingabe batekin harremanetan jartzeko, asmo sexualak asebete guran. Adingabe biluzien argazkiak lortzea izaten da mota horretako erasotzaileen lehenengo helburua. Lehenengo argazki horiek oso modu desberdinetan lortzen dituzte, baina engainua bailatuta kasu gehienetan.

Lehen, pederasta bat biktima baten bila zebilenean, informazioa lortu guran, «itsu-itsuan» bilatu behar izaten zuen sarean, adingabeko batekin harremanetan jartzea lortzen zuen arte. Hori egin ostean, informazioa atera behar izaten zion, apurka-apurka, harik eta adingabearen gustuak eta zaletasunak ezagutu arte, eta horrela jakiten zuen harekiko kontaktua zelan lortu. Hau da, denbora behar izaten zuen atariko lanak egiteko.

Gaur egun, ordea, ez dago aurretiko lan hori guztia egin beharrik, informazio hori guztia sare sozialen profiletan agertzen baita, profila bisitatzen duen edonoren eskura. Hantxe ageri da dena, argazki-andanarekin batera: gazteak zenbat urte dituen, non ikasten duen, zein adiskide, gustu eta zaletasun dituen.

Pederasta bati ez zaio batere zaila egiten, informazio hori guztia bilduta, gaztearengana heltzeko moduko profil bat sortzea, berarekin «enamoratu» dadila lortzeko. Lehenengo gerturatzeen ostean, adingabeak aurreneko argazki konprometitua bidaltzea lortzen du, eta, hortik aurrera, erasotzaileak jokabidea aldatzen du, eta orduantxe hasten da estortsioa: «…adingabekoak ez badio beste argazki bat bidaltzen, pederastak gaztearen kontaktu guztiei bidaliko die irudi hura, gurasoei, irakasleei…», eta horrela hasten da benetako kalbarioa gaztearentzat.

Kasu batzuetan, adingabekoak bere profila ezabatzen du sare sozialetatik mehatxuei muzin egiteko, baina hori konponbide txar bat baino ez da, eta aldi baterako soilik. Izan ere, behin boladatxo bat igarota, biktimak beste profil bat sortuko du sare berean edo beste batean, eta berriz ere joko du lehengo ezagunengana, eta hantxe agertuko da erasotzailea, haien artean, zelatan.

Beste kasu batzuetan, adingabeak ez du behar besteko baliabide psikologikorik izango, eta xantaiaren biktima izango da, askotan beldurrez ibiliko delako, gurasoek zer leporatuko ote. Horrela, zurrunbilo amaiezin batean murgilduko da, eta pederastak zenbat eta material gehiago izan esku artean, orduan eta harrapatuago egongo da adingabea haren sarean.

Salatzea da irtenbide bakarra. Erasotzaileak jazarpenari uzteko metodo eraginkor bakarra da. Gainera, salaketa lehenbailehen jarri behar da, adingabekoak argazki bat ala ehun bidali dituen alde batera utzita. Azkar jokatuz gero, erasotzailea atxilotuko dute, eta haren disko gogorraren barruan egongo dira artean irudi konprometituak, beste pedofilo batzuei bidali barik edo orri pornografikoko arduradunei saldu barik. Lehenbailehen erreakzionatu beharra dago, baina derrigortzeak hasi zirenetik zenbat denbora pasatu den alde batera utzita, salaketa jarri behar da: berdin da astebete igaro den, hilabete bat edo baita urtebete ere.

***Ciberbullying*a.** Betidanik egon den beste delitu bat da berdinen arteko jazarpena, *bulling*a. Orain teknologia berriek bultzatu dute, eta izen berri bat hartu du, *ciberbullyng*a, teknologia haien bidez egiten denean.

Lehen, erasotzailea bere biktimak baino handiagoa zen fisikoki, eta bere nagusitasunaz baliatzen zen ikaskideak menderatzeko.

Jazarpen-mota hori eskolako ingurunean baino ez zen gertatzen. Eremu horretatik kanpo, adingabea bere auzora bueltatzen zenean, adiskideek ez zuten egoera horri buruz ezer jakiten, eta ez zen haren berri zabaltzen.

Baina teknologia berrien agerpenarekin erasotzaile gehiago sor daitezke: orain ez da beharrezkoa fisikoki nagusiagoa izatea, eta edozeinek atera diezaioke argazki konprometitu bat ikaskide bati, Interneten igo eta erasotzeari ekin.

Gainera, oraingo jazarpena ikasgeletatik haratago doa. Sare sozialetan eskegitzen denak hezkuntza-eremua gainditzen du, eta edonork, munduko edozein lekutan, jakin dezake adingabearen aurkako zirikatzearen berri. Horrenbestez, oso litekeena da jokabide hori adingabekoaren bizitzaren beste eremu batzuetan ere errepikatzea. ■

Goio Monreal Zia:

«Foruak euskal identitate jakin bat konfiguratu zuen»

Miel A. Elustondo
Idazlea eta argazkilaria

2013ko Euskadi Ikerketa saridun da Goio Monreal Zia (Etaiu, 1942). Zuzenbidearen Historia du lan arlo. 1976an ESEI alderdia sortu zuen. Handik urtebetera, senatari zen Madrilen. 1979an Autonomi Estatutuaren erredakzioan parte hartu zuen. Euskal Herriko Unibertsitateko errektore (1981-1985), Eusko Ikaskuntzako buru (1991-1996), Zuzenbidearen Historiaren katedraduna Nafarroako Unibertsitate Publikoan… Monrealen bikaintasun poliedrikoa goraipatu zuen behin halako Pedro Migel Etxenike zientzialariak. William A. Douglass antropologoak, berriz, inoiz ez omen du ikusi Monrealen pareko ikertzaile saiaturik, ezta bera bezain zorrotzik ere. «Xehetasun batek ere ez dio ihes egingo», Douglassen arabera.



Solasean hasi, eta sorterriari lotu zaio... «Ega ibarra», azaldu du. Kodes mendilerroa, batean, «zoragarria Etaiutik begiraturik», eta San Gregorio lerroa, bestean, «gaintxoan San Gregorio Ostiense baseliza duela». Lokiz, Monjardin eta Jurramendi ere ditu aipagai, «zazpiren bat kilometroko sakonera duen ibarra. Nafarroako ibarretan ederrena» –Pirinioak aparte utzirik–…

Etaiuz ari zinen…

Bertan izan nintzen hamar urte arte. Eta, kanpoan ikasten hasi nintzenean ere, han nintzen beti oporretan. Han da gure gurasoen etxea. Bertakoa zen aita. Aitatxi, Mueskoa. Amatxi, Torralbakoa. Ama, aldiz, Deierri ibarrekoa zen, ibar paregabea hura ere, Allozekoa, urtegia dagoen lekukoa. Nafar-nafarra naiz, erdialdekoa, bertakoak ditut deitura guztiak ere, Monreal, Zia eta gainerako guztiak. Zortzi anai-arrebatan bosgarrena naiz… Harrigarria da, senide nagusiek oso maiteak dituzte txikiak, eta gogor defenditzen dituzte. Defenditu, benetan defenditu, gero! Nafarrak herri biolentoa gara, eta senide nagusien babesa izatea nahitaezko zitzaigun bakean bizitzekotan.

Nafarrak, herri biolentoa?

Baietz esango nuke. Beste asko baino primarioagoak gaituzu…

Gipuzkoarrak baino bortxazaleago, adibidez?

Hara, XIX. mendean, gerra berak egin genituen. XX.ean, aldiz, geu izan ginen erasotzaile. Gipuzkoarrek ez ziguten eraso, guk bai. Nafarroako karlistek Gipuzkoa inbaditu zuten, Endarlatsatik eta Lazkaotik barne sarturik. Gure osaba batek, esaterako, hamazazpi urte zituela, fusila hartu eta zauria egin zuen, Lazkao iragan ondoren. Geu izan ginen erasotzaile, nafarrok, ez gipuzkoarrak. Sekulakoak egin zituzten, gainera! Horra Fernando Mikelarenaren bloga: nafarrek Berako harrobian egin zuten hilkintza azaltzen du bertan; laurogei lagun hil zituzten! Horra Nafarroako karlisten gerra batzordearen aldarria ere, esanez Gipuzkoan gozoegi sartu zirela, jendea begirune handiegiz ari zirela hartzen… Zalantzarik gabe, Gerra Zibilean geu izan ginen erasotzaile. Gipuzkoan inork ez zigun horretarako aitzakiarik eman.

Migel Sanchez Ostizek genozidio hitza erabili zuen *Erlea* aldizkarian *El Escarmiento* (Pamiela, 2013) liburuaz Alberto Barandiaranek egindako elkarrizketan…

Eta ez da oker ari. Gure aita ere fusilatzeko zorian izan zen, bitan. Bila etorri zitzaizkion Etaiura. Bi pertsonaren bila joan ziren. Gure aitak sozialistei emana zien botoa, sozialista baitzen, ez baitzen ergela. [Manuel] Irujori ere eman ziezaiokeen botoa Muesen, aitaren herrian, alargun utzi zuten aitaren lehengusu bat. Gure ibarrean ez dakit inor hil ote zuten, baina Nafarroan ikaragarria izan zen triskantza.

Zuen aitak sozialistei eman ziela botoa esan duzu. Irujo bera ez zen aukera txarra izango…

Uste dut ahal zela sozialistaren alde botoa eman eta Irujoren alde egin, zerrenda irekiak baitziren, oker ez banaiz. Gure aitak bazuen sozialistei bozka emateko arrazoia… Urte bat Urbasan egin zuen lan, egurra egiten, enpresabururen batentzat. Aizkoran ari zela, zauria egin zuelarik, Altsasura jaitsi zen. Konstantino Salinas zen hango medikua. Artatu zuen eta, egurketaria zela ikusirik, ez zion deus kobratu. Gure aitak betiko gorde zuen hori! Konstantino Salinas, ez alferrik, diputazioko gestoraren presidente izan zen Bigarren Errepublikaren garaian. Gure aitak harixe eman zion beti botoa, inondik ere, ordainetan, Altsasuko hartan dohainik artatu zuelako.

Irujo aipatu dugunez, bertatik bertara ezagutu zenuen zuk, Franco hil ondoko Trantsizioaren hasieran Espainian senatari izan zinen garaian…

Frente Autonomikoko kide nintzen. PNV, PSOE eta ESEI ginen. Gogoan dut lehenbiziko mitina Eibarko Astelenan egin genuela. Irujo, Enrike Mujika eta hirurok ginen hizlari. Nik neure gisako hitzaldia egin nuen, irakasleari ohi dagokiona: lehenengo puntua, bigarrena, hirugarrena, eta ondorioak. Jendeak errespetuz entzun zidan. Ongi. Etorri zen On Manuel, jaso zituen bi besoak, hasi zen mintzatzen, eta frontoia lurrarekin berdindu beharrean jarri zuen!

On Manuel

«Bizitzak egin didan oparia iruditzen zait On Manuel Irujo ezagutu izana. Auzo herrikoak ginen. Errepublika garaian, euskal politikaren erreferente nabarmena izan zen. 40 urte erbestean egona –pobrezian ere, bizitza eredugarria izan zen harena–, 90 urteko agurea zenean ere adoleszente baten bipiltasunez bizi zituen ideal politikoak. Guk, berriz, 72 urte, eta nekaturik bizi gara: zenbait politikari hizketan ari direla, itzali egiten dut irratia nahiz telebista. Ez du gogorik ematen. Alde handia dago. Uste dut Agirre lehendakaria, (Frantzisko Jabier) Landaburu... Irujoren gisakoak zirela. Nik, beharrik, On Manuel ezagutu nuen. Horixe dut politikak eman didan poz handienetakoa».

«[36ko gerra] Gure ibarrean ez dakit inor hil ote zuten, baina Nafarroan ikaragarria izan zen triskantza»

Hiru-lau ideia azaldu zituen, ongi erranak, konbikzioz. Zeren, Irujo, oroz gain, konbikzioduna zen, eta konbikzioa transmititzen zuen: tribuno errepublikarra zen. Eta, egia da, Espainiako Gorteetan ezagutzeko fortuna ona izan nuen, talde parlamentario berean baikinen. Madrileko sasoi hartako esperientziarik ederrenetakoa dut Irujoren lankide izana.

Irujoren lankide…

Eta, hein batean, konfidente, adin handikoa baitzen, eta, nik erratera, uste dut alderdian aski baztertua zutela, ez ziotela gauza anitz kontsultatzen. «Eta zuk, Etaiuko Monreal, zer dakizu honetaz?», erraten zidan. Bera Lizarrakoa, ni Etaiukoa, «Etaiuko Monreal», erraten zidan. Eta, nik, jakina, gogo onez kontatzen nion nekiena. Min ematen zidan alderdien joko hark, Irujo bazterturik ikusteak. Adin handikoa zen, kasik laurogeita hamar urte izanen zituen, baina argitasunez betea zuen burua.

Zer ikasi zenuen Espainian senatari izan zinen aldi horretan?

Historialaria bainintzen, esperientzia paregabea izan zitzaidan. Konstituzio bat nola egiten den ikusi ahal izan nuen, egiten parte hartu nuen, emendakinak idatziz eta defendituz. Eta, esaterako, Lehenengo Xedapen Gehigarria lantzeak ekarri zuen korapilo bihurria bizi izan nuen. Hori, lehenbiziko lerroan bizi izan nuen. Konstituzio bat nola egiten den ikustea gauza handia da. Gaur egun, berriz, hainbat irakaslek, politikarik edo kazetarik halako artikulua sakralizatzen dutela ikusi, eta sinestezina iruditzen zait. Bazkalondoan kafea hartu bitartean egin baikenuen Enrike Mujika, Peces Barba, *el zorro plateado* [Perez Llorca], Abril Martorell eta gainerakoon artean! Badakigu nola egin zen Konstituzioa! Hura bertatik bertara bizitzea garrantzizkoa izan zitzaidan, oso.

Barne-barnetik bizi izan zenuen…

Eta estatuak barnetik nola funtzionatzen duen ere ikusi ahal izan nuen. Nola funtzionatzen duen klase politikoak: adiskidetasun harremanak, elkarrekiko eraginak, nork egiten duen presio, nork ez… 1977an estatu modernoa izan zitekeen hark nola jokatzen zuen ikusi nuen, alegia. Prozesu konstituziogilea zen, eta, ni, berriz, Zuzenbide historialari; erran nahi baita, estatuaren historialari, botere eta pentsamendu politikoarena. Ez da gauza bera esperientzia hori izan ala ez izan. Askoz hobeto konprenitzen duzu Canovasekin gertatzen zena, 1876ko eztabaida parlamentarioa eta abar. Plus bat ematen dizu, historialari zein jurista zaren aldetik.

Espainiar estatuaren prozesu konstituziogilean parte hartu zenuen, esan duzunez. Baita Gernikako Estatutuaren erredakzioan ere. Gero, berriz, UPV/EHU eratzeko prozesuan jardun zenuen lanean, errektore…

Ez dakit nolaz nagoen hemen oraindik, lan asko egin behar izan baitut beti. Kar, kar… Nafarrok, izan ere, zinez adoretsuak gara, eta adoretsu bezainbat gogorrak! Belaunez belaun heldu zaigu: lan egin beharra, gure aita zenak egin zuen bezala, goizetik arrats eta eguzkitik ilargira bitarte, beti lanean. Geneetan daramagu. Unibertsitatearen sortzea guztiz lan gaitza izan zen. Orduko errektore Martin Mateok, oraindik orain hil baita, hemengo unibertsitatea presio-galdara zela ikusi zuen, ezin ziola eutsi, eta utzi egin zuen. Balio handiko pertsona zen Martin Mateo, baina Alacantera (Espainia) joan zen, Mediterraneo ertzera, unibertsitate lasaira. Hemengo egoera txarra zen. Ikasle kopurua %20 emendatzen zen, aldiro, eta aurrekontuak, berriz –artean Madrilenak baitziren–, ez ziren hein berean emendatzen. Ikasketa berriak abiarazi beharra zegoen, eraikinik aski ez zen, irakasleen egoera nolahalakoa zen, estatuturik ez zen, eta unibertsitateari buruzko ikuspegi guztiz idealista zuen jende askok. Irakasle gazte askok uste zuten sistema asanblearioak zuzendu behar zuela unibertsitatea! Martin Mateok, adibidez, troika bat izendatu zuen alde egin aurretik: besteak beste, Koldo Mitxelena zen troika hartan. Eta gogoan dut Mitxelenak esan zuela okerrago pasatu zuela troikan izan zen garaian, kartzelan heriotzara kondenatua egon zenean baino. Oso latza zen egoera!

Aldi berean, mundua zenuten eginkizun! Guztia eginkizun...

Hori ere ederra da, bai. Maniobra margen handia genuen. Gaur egun, oro har, erakundeetara iritsi eta eginik dago dena, ez dago eguneroko miseriak kudeatu beste lanik. Aldiz, orduko hartan, eratzeko gaitasuna genuen, hainbat eta hainbat gauza ordenatzeko gai ginen. Aukera aparta izan genuen, bai nik eta bai nirekin izan zen errektore ekipoak. Lehen mailako jendea nuen ondoan! Esan dut jende askok unibertsitateari buruz ideia esperpentiko xamarra zuela, baina, haiekin batean, bazen hainbat jende ere zentzu handikoa. Errektorearen lana zen jende zentzudun hura artikulatzea, bateko eta besteko gaiak gobernubatzorde eta irakasle klaustroetan onar zitezen. Beharbada, irakasle zentzudun haiek artikulatzea izan zen gure aldiko eginkizunik behinena.

Memoria

«Memorian daturik ez baduzu, ezinezko duzu zientzia gauzatzea. Ezinezko duzu Canovasen gainean jardutea XIX. mendearen berri izan gabe. Sasoiko konstituzioak nola eratu ziren ez badakizu, sasoiko alderdi politikoak nola osatu ziren, aldi hartako egoera sozio-ekonomikoaren berri ez baduzu, alferretan ari zara! Zure sormen-lana da datu horiek bata besteari lotzea, artikulatzea. Daturik ez baduzu, ordea, zer artikulatu behar duzu?».

Orduko unibertsitateak eta oraingoak ez dute antzik…

Batere ez! Mendebaldean, unibertsitate sistemari dagokionez, ez dago asmatzen ibili beharrik. Unibertsitate ona Alemanian duzu, Suitzan, Herbehereetan, Europa Iparraldean… Haiek dira eredu. Errektore izan nintzen garaian, oso gaizki geunden, unibertsitate normala izan nahi genuen. Orduko unibertsitatea eta oraingoa dela-eta, arestian aipatu dudan Mikelarenaren ohar bat datorkit gogora. Zioenez, gure belaunaldiaren sasoian, unibertsitatean nahiko eraikinik ez zegoen, ekipamendurik ez genuen, irakasle egokirik ez… eta, hala ere, unibertsitatetik irten eta ezagutza maila duin xamarra dugu. Orain, berriz, ikasleek ez omen dakite –ez, hala ere, Kubako Gerrari buruz– 36ko gerrari buruz ezer! Are okerrago, Franco nor izan zen ere ez omen dakite! Adibideez ari naiz. Ez dakit unibertsitatearen porrota den, edo oraingo ikasleek ordu gehiegi ematen dituzten telebistari begira; eta denbora gutxi, aldiz, liburuak irakurtzen.

Euskadi Ikerketa sariak ekarri gaitu zuregana, eta zure ikerketa bidean forua baitezpadakoa duzu…


Garrantzi handikoa da forua eta, zehatzago, Bizkaiko Forua, Foru Zaharra. Erdi Aroan bertan, Europako forurik aurrerakoiena izan zen libertateak aitortzeari dagokionez. Amsterdameko unibertsitateko katedradun Hans Jankum-i Forua bidali niolarik, hauxe esan zidan, «guztiz foru modernoa da». Ematen dituen soluzioei begiratu besterik ez dago horretaz jabetzeko: dela emakumearen egitekoa, dela genero berdintasuna, familia jabetza eta, oro har, ematen duen libertate maila handia. Usteko dugu Frantziako Iraultzak, Ingalaterrakoak edo Amerikakoak ekarri zuela libertatea, baina, lehenago ere hortxe ageri da libertate zibila gure Foruan, oso neurri handian ere. Garrantzi handikoa da Forua, euskal identitate jakin bat konfiguratu zuelako, identitate elementua izan zelako. 1876an Foruak galdu arte, euskaldunari galdetu identitateari zegokionean zer ote zen garrantzizkoago, hizkuntza edo foruak –esan nahi baita, orduko autogobernua–, eta ez zuen zalantzarik egingo: «Autogobernua, foruak», esango zuen. Herri honek 1876 arte gastatu zuen energiarik handiena foruen defentsan gastatu zuen. Canovasek herri honi foruak bortxaz kendu zizkionean, hizkuntzaren alde egin zuen gizarteak. Urte hartan bertan agertu zen Asociación Euskara, eta orduantxe *Euskara* aldizkaria. Handik laster, *Euskalerria* aldizkaria. Geroago, hizkuntzaren akademia, eta abar. «Galdu ditugu foruak, eutsi diezaiogun hizkuntzari, bera baita geratzen zaigun identitate zeinurik garrantzitsuena». Euskaldunak euskara maite zuela, ez da zalantzarik. Horra Juan Madariagaren liburua, Renon (Nevada, AEB) ingelesez argitaratu genuena, eta gaztelaniaz ere irakurtzen ahal dena: *Apologistas y Detractores de la Lengua Vasca*. Irakurtzekoa da liburua, eta etxean edukitzekoa. Han ageri denez, 1876 baino lehen ere, euskaldunek maitasun handia zioten euskarari, nahiz eta Etxeberriko Joanesen esanak ere hor diren beti, esanez askok maite duela euskara, baina gutxik mintzatzen.

Foruak lehenesten zituen euskaldunak, esan duzunez.

Bai. Foruak ziren euskaldunek zuten dohainik ederrena, autogobernu sistema. Foruen eta euskararen artean harreman dialektikoa zegoen. Erakundeek ez zuten hizkuntzaren defentsa nabarmenik egiten baina, haatik, berezko erakundeak izateak *de facto* hizkuntza babesten zuen. Badakigu Bizkaiko eta Gipuzkoako batzarretan euskaraz mintzo zela euskalduna. Hizkuntza politikarik gabe ere, erakundeek euskara babesten zuten. Dena den, foruak duen alderdirik garrantzitsuena hura ulertzeko modua da: edo zeure zuzenbidea eratzeko ahalmena da forua –horixe baita gauzarik garrantzitsuena–, edo erakunde jakin batzuen batura da. Biak dira foru, baina bigarrena da garrantzizkoagoa: zuzenbide pribatua nahiz publikoa eratzeko ahalmena izatea.

Zuzenbidea eratzeko ahalmena…

Izan ere, zer dute ikustekorik orduko nekazari gizarteak, alde batetik, eta, bestetik, oraingo gizarte moderno eta, are, postmodernoak? Zer da garrantzizkoago, beraz, etxalde baten jarduera arautzeko erakundeak izatea, edo, aldiz, esatea: «Neure zuzenbide zibila dut –alemanek eta italiarrek duten moduan–, foruak ematen didan ahalmen konstituziogilea dudalako». Bigarren hori da garrantzitsua. Zuzenbide Publikoan, bestalde, forua ez ezik, hor zen ohitura ere. Eta diputazioek,



batzar nagusiek, udalek, eta abarrek ohitura zuten lege. Horretan ez gara jende arraroa! Berdin gertatzen da Ingalaterran. Han ez dute konstituziorik. Han, epailea 1215eko Karta Magnako araua ari da aplikatzen! Beraz, horretan antz handia dugu anglosaxoiek –ingelesek, batik bat– eta euskaldunok. Antz handia.

Zer geratzen da forutik?

Hara, Sagarminaga irakurri, eta dio garrantzizkoa ez dela halako erakunde hau edo hura izatea, gure arbasoek ere aldatu egiten zituztela erakundeak, balio ez zietenean. Garrantzizkoa –zioen Sagarminagak–, egiteko ahalmena zen, eratzeko ahalmena, ahalmen konstituziogilea.

Egun, gurean, erakundeak baditugu, azken bururaino erabakitzeko ahalmenik ez…

«Canovasek Herri honi foruak bortxaz kendu zizkionean, hizkuntzaren alde egin zuen gizarteak»

Horregatik ari naiz, bada! Horretan gara foruak galdu genituenetik. Zenbaitek dio: «Inoiz baino autonomia handiagoa duzue!». Bada, ez, ez da egia. Foru sistemaren arabera, nahiz eta erregek indar handia izan, erabakitzeko ahalmena herrialdeak zuen. Estatutuak egin zirenean –batean, Lizarrakoa; bestean, Gernikakoa; Nafarroan, haren kopia, Amejoramendu Legea–, hondarrean, xedapen gehigarria erantsi zen: «Estatutu honek ez dio uko egiten gureak diratekeen eskubide historikoei». Hain zuzen, eskubide historiko horietan dago gakoa, ahalmen konstituziogilea. Orain ez dugu horrelakorik, ahal dugun Estatutua dugu, baina ez diogu uko egiten nahi dugun konstituzioa izateari etorkizunean. Eskubide historikoa dugu: espainiar estatuan gaude, konstituzio bat dago –onartzen dugu–, halako indar erlazioa dago, iristen garen lekura iristen gara, baina nork daki zer gerta litekeen etorkizunean? Eskubide historikoei dagokien xedapena baliatu ahal izango dugu orduan. Horixe da foruaren garrantzia.

Nafarra, UPV/EHUko errektore izana, eta, bestalde, Zuzenbide Historikoaren

katedraduna Nafarroako Unibertsitate Publikoan… Bi erkidegoetan jardun duzu, zangalatraba. Bat izanagatik ere, bi herrialde direla ematen du…

Horretaz denaz bezainbatean, errektore nintzen garaian, Mexikon izan nintzen batean, horixe esan zidaten: «Usted es de la Universidad de los Países Vascos, ¿verdad?». Txantxak aparte, ahalegin ikaragarria egin behar dugu gure mentalitatea aldatzeko, eta benetako herrialdearen errepresentazioa izateko geure buruan. Ez dago aurrera egiteko beste modurik. Nork du horren ardura? Gizarte zibilak… Gure arteko harremanak gauzatzeko baldintzak Francoren garaikoak baino askoz hobeak diren arren –gure hiriburuak bata bestetik ordu bat edo ordu eta erdian daude–, atzera egin dugu Trantsizioaz gero, bi erkidegoak osatu zirenetik. Vasco-navarro izeneko elkarte guztiak, kasik guztiak, galdu dira. Atzera egin dugu. Juan Cruz Alli saiatu zen, Ardanzaren garaian, hitzarmen moduko bat egiten, denoi dagozkigun arloetan bat egiteko, denok irabazteko moduan. Baina ez zen gauzatu, eta bi erkidegoen arteko elkarlanik ez da egon: errepide eta tren azpiegiturak, telekomunikazioa, unibertsitatea, ikerketa… Bai Nafarroako eta bai Euskadiko erkidegoetako hiritarren onerako zitezkeen hainbat proiektu, bertan behera geratu ziren.

Ageriko denez, Nafarroan agintean daudenek ez dute EAErekin elkarlanik nahi…

Eta larrutik ordaintzen ari gara, larrutik. Horra Kutxa, CAN. Garai batean bai, izan zen euskal-nafar kutxen federazio bat, Errepublika sasoikoa, edo lehenagokoa. Primeran funtzionatu zuen, batak bestea errespetatzen zuten, elkar laguntzen zuten, eta, bat egiteko garaia heldu denean, aurreiritzi politikoa tartean jarri, eta ikusi dugu nola etorri diren gauzak. Badakigu Migel Sanzek galdera egin zuela, kutxen bat egitea zela-eta, zein ote zitekeen aukera egokiena; alegia, euskal kutxekin bat egin, edo, bestela, Aragoikoarekin, Ibercajarekin eta gainerakoekin bildu. Ekonomiari zegokionez, antzeko ziren bi soluzioak, nahiz eta ordurako ikusten zen Andaluzia aldean zertan ziren kutxak. Bada, soluziorik okerrena hartu zuten, eta jada ez dugu Kutxa hura. Duela hamalau urte, osasun betean zegoen Nafarroako Kutxa, eta gaur ere halaxe zatekeen, baina orain Nafarroak ez du kutxarik, orduko agintarien aurreiritzi politikoen zorakeriagatik. Larrutik ordaindu dugu, nafarron kaltetan izan da, jakina. Adibide bat besterik ez da, bistakoena, beharbada. Baina hainbat dira.

Nafarroako agintari asko uzkur EAErekiko. Eta alderantziz?

EAEn ere ez dute sentiberatasun egokia Nafarroarekiko. Ez da Nafarroako gaia ulertzen. Hobeto ulertzen zuten Agirrek, eta Irujok, Lizarrakoa baitzen. Baina orduan bertan ere ez zuten behar bezala ulertzen. Irujok kontatu zidanez, Errepublika garaian propagandarekin etortzen zitzaizkion Bilbotik, eta, berak, propaganda hura ekartzen zutenen aurrean, txikitu egiten zuen: «Honek ez du hemen balio», esanez, «nik ezin dut hau hemengo herrietan zabaldu». Eta orain-dik ez dugu ikasi.

Hainbat galdera egin dizkizut, baina beharbada ez egin beharko nizukeena. Zein da galdera hori?

… «Zoriontsu zara?» Horixe da lehen galdera, oinarrizkoa. Galdera horrek beste bat dakar, nahitaez: «Zer duzu zoriona?». Galdera zaila, inondik ere. Beti ari dira galdera horixe egiten. Ilustrazio garaian, esaterako, zoriona baitezpadako gaia zen. Eta Cadizko (Espainia) eta AEBetako konstituzioetan zer zioten, bada, pertsonak zoriontsu izateko eskubidea duela besterik? Garrantzi handikoa da galdera hori, nahiz eta, gaur egun, inozoa iruditu. Eta, hala ere, galderarik garrantzitsuena duzu, eta eskubide guztien artean, betetzen zailena. Horixe izan zitekeen nire galdera: «Zoriontsu zara?». ■

Euskara

«Ni unibertsitatean izan nintzen sasoian, Deustun, euskaraz mintzo ziren Derioko apaiztegian ibilitako batzuk, fraide eskolaren batean ikasitakoren bat… eta Abel Muniategi. Gainerakoan, guztiz ezezaguna zen euskara Bilbon. Gaur egun, Vasconian, Nafarroa barne, ikasleen % 33 D ereduan ari da. Euskara ikasgaitzat duten ikasleak barne, % 60 ere badira. Unibertsitatean, euskararen ezagutza guztiz handia da. Ikasten ari nintzen sasoian oraingo hau esan izan balidate, ez nukeen sinetsiko. ETB1 ikusten ahal dut etxean, Arlegin, analogikoan badarik ere, eta autoan Euskadi Irratia entzun ohi dut. Halarik ere, ez dago parekotasunik ezagutza maila kolosalaren eta hizkuntzaren gizarte erabileraren artean. Horixe da herri honek duen lanik handiena, eta soziolinguistek eta politikariek pentsatu beharko dute zer egin ikasleak gelatik korridorera irteten direnean –nahiz eskolan nahiz unibertsitatean–, euskaraz mintza daitezen jolastokian, tabernan edo karrikan. Hizkuntzaren gizarte erabilera. Dramatikoa da».


Digitalizazioaren mamua, etorkizuneko erronka

Maite Orue
Kazetaria

Denborak aldatzen doaz, eta inork gutxik jar dezake ezbaian teknologia berriek azken urteetan izan duten bilakaera. XXI. mendeak digitalizazioaren aroa ekarri duela eta, sareak internauten esku-eskura jarri ditu askotariko produktuak. Neurri handiagoan edo txikiagoan, erabiltzaileen gehiengoak sumatu du Internetek eta teknologia berriek duten eragina, kontsumitzeko ohiturak aldatzera ere iritsi baitira.



EZTABAIDA



Interneten erabileraren hazkunde esanguratsuak eragin handia izan du hainbat sektoretan. Hedabideek, adibidez, kazetaritza egiteko era berrietara moldatzea beste aukerarik ez dute izan. Eta esan beharrik ez dago musikaren esparruan iraultza eragin dutela teknologia berriek; doako deskargen, diskoak grabatzeko aukera berrien, kopia piraten… eraginez, ondorioak agerikoak dira musikagintzaren arloan.

Liburugintzarenean, aitzitik, teknologia berrien eragina hain sakona izan denik ukatzen dute zenbaitzuek, liburu elektronikoaren garapena uste baino mantsoago ari baita gertatzen. Dena den, bada kezka agertzen duenik ere, faktore teknologikoez gain, sozialak ere kontuan hartu behar direlako.

Liburu tradizionalen defendatzaileen iritziz, paperaren usaina edo orriak ukitzearen sentsazioa ezin daitezke digitalizatu, eta askoz erosoagoa da paperean irakurtzea, pantailan baino. Hala ere, liburu digitalizatuak omen dira datozen urteetan gehien ikusiko direnak, geroz eta gehiago erabiltzen eta saltzen baitira egunez egun. Liburu elektronikoa, liburu digitala, ebook-a, liburu-e. Hamaika izen hartzen dituen hori bere lekua ari da egiten, paperean argitaratutako liburuaren kaltetan.

Liburuaren etorkizunari buruzko eztabaida mahai gainean dela, lehenengo liburutegi elektronikoa zabaldu zuten iazko irailean Ameriketako Estatu Batuetan: Bibliotech. Beste herrialde askotan ere egina daukate liburu elektronikoaren aldeko hautua. Euskal Herrian, aldiz, oraingoz gutxi dira horiek mailegatzeko aukera ematen duten liburutegi publikoak. Hala ere, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua pausoak ematen hasiak dira liburu elektronikoak erabiltzaileen eskura jartzeko.

Adibidez, Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol Sailak Euskal Herriko bi editore-elkarteekin sinatutako akordioari esker, uztailetik aurrera liburu digitalak 21 egunez doan jasotzeko aukera izango dute erabiltzaileek, Euskadiko Irakurketa Publikoko sarea osatzen duten Araba, Bizkai eta Gipuzkoako 230 udal liburutegietan. Denetara 25.000 lizentzia inguru eskainiko dituzte, 500.000 mailegu bideratzeko beste. Horietatik, 8.750 euskarazko lizentziak izango dira, eta 16.250 gaztelerazkoak.

Kultura eskaintzeko modu berri horrek, ordea, bestelako auziak ere badakartza berarekin; argitaletxeak, dendak, banatzaileak, egile- eskubideak, eta abar sartzen direlako eztabaidan. Digitalizazioa mehatxutzat hartzen dutenen arabera, arriskuan leudeke komertzializazio eta salmenta bide tradizionalak, eta egile-eskubideak ez lirateke errespetatuko. Egile-eskubideak dauzkaten edukiak zabaltzerakoan, argitaletxeek eskaintzen dituzten lanengatik urtero-urtero berritzen den kanon bat ordaintzea da munduan nagusitzen ari den joera. Jaurlaritzak, bere aldetik, eredu propio bat garatzea dauka helburu: plataforma propioa eta lizentzia mugagabeak lehenetsi nahi ditu.

Erakundeen planak zertan diren zain egon gabe, baina, argitaletxeek zenbait urrats eman dituzte, eta Euskal Herrikoak ez dira salbuespena izan. Liburu digitalen eta tradizionalen arteko bizikidetza posible zela iritzita, euren liburuak elektroniko bihurtu zituzten duela zenbait urte. Horrez gain, euskaraz liburu digitalak zabaltzeko plataformak sortu zituzten; Gurebook eta Liburu-e, kasurako.

Geroari begira, berrasmatzeko erronka daukate liburugintzak nahiz, oro har, kulturaren sektoreak; eta aldaketak hobe beharrerako izan daitezkeela eta, abagunea aprobetxatzen jakin beharko du.

Hari horretatik, zenbait adituk etorkizuneko aldaketa eta erronka horien inguruan dauzkaten iritziak bildu ditugu ondorengo lerroetan. Halaber, digitalizazioak hainbat produktu doan jasotzeari bidea zabaltzen diola eta, kultura debalde eskaini behar ote den galdetu diegu.



Joan Mari Torrealdai
Idazlea, euskaltzaina, kazetaria eta soziologoa

Kultura doan eskaintzea utopia polita da. Aldarrikapen bezala neu ere bat natorke. Eskubidea dela diote batzuek, oinarrizko eskubidea eta beste guztien gainetik dagoena. Eta langileak ez al du bere lanaren ordaina jasotzeko eskubiderik? Egile-eskubidea horixe da, sortzaileari dagokion lansaria, etikoki eta ekonomikoki zor zaiona.


Enpresa teknologikoak indar handiz eta begirune gutxiz sartu dira liburugintzaren munduan, aurretiaz egituratua zegoen sektorearen arauak birrinduz. Gainera, enpresa hauek amerikarrak dira, eta Europako liburuaren industriari muzin egin zioten. Bestalde, enpresa teknologikoak ez dira filantropoak, doakotasunaren printzipioa aurretik bota eta atzetik negozio galanta egiten baitute.

Honek guztiak sorkuntza-prozesuarengan daukan eraginari dagokionez, sortzaileari negatiboki eragitea txitoa arrautzan hiltzea dela deritzot. Izan ere, kontraprestaziorik gabe sortzaileak ezin du eduki kulturalak ekoizten luzaroan jarraitu.

Papereko euskarriaren eta digitalaren arteko bizikidetza, posible ez eze, desiragarria ere bada, eta jada gertatzen ari da. Liburuaren munduan, digitalaren eta analogikoaren eragileak diferenteak ziren hasieran, liburuaren profesionalak alde batean baitzeuden eta enpresa teknologikoak bestean. Gaur egun baretuago daude bazterrak: liburu analogikoa bat-batean desagertuko zela zioten profezia apokaliptikoak ez dira bete. Hori bateko. Eta besteko, liburuaren sektorea bera ari da orain liburu digitalaren afera bere gain hartzen.

Euskarazko liburuen argitalpenari dagokionez, hasierako uzkurraldiaren ondoren, gurean ere sektorea ari da erreakzionatzen, apal bada ere. Elkar osatzea lortuko delakoan nago. Iruditzen zait natibo digitalen bidetik baino gehiago, bideratuko dela prozesua ohiko argitaletxeen eskutik.

Bestalde, euskararen presentzia erlatiboki handia da Interneten, baina ez du ematen horrenbestekoa liburu elektronikoaren munduan. ●





Imanol Agote
Kultura ondareko zuzendaria, Eusko Jaurlaritza

Nire ustez, kultura ongizatearen gizartearen zutabe bat da, eta ongizatearen gizartean oinarrizko zerbitzu batzuk doan eskaini behar dira; esate baterako, liburutegi zerbitzuak.

Teknologia digitalen eragina arlo guztietara zabaldu dela eta, informazioa lortzea askoz ere errazagoa da gaur egun, ekoizpena merkatu egin da, eduki digitalen banaketa kostea zerotik oso gertu dago eta kultur ohiturak izugarri ari dira aldatzen. Beraz, zer da falta zaiguna? Nire iritziz, gure zerbitzu ereduak egoera berri horietara egokitu behar ditugu. Hor dago gure erronka.

Papereko eta digitaleko euskarrien arteko bizikidetza posible den galdetuz gero, papera desagertuko ez dela erantzungo nuke, baina nagusitasuna galduko duela deritzot, euskarri digitalen mesedetan.

Liburu elektronikoak gurean izango duen eraginari dagokionez, bestalde, adibide bat jarriko dut: Norvegiak lau urtetan jarriko ditu sarean 2000. urtera arte norvegieraz argitaratutako liburu guztiak. Hortaz, teknologiak eskuragarriago jarriko du kultura. Ez dut uste albiste txarra denik kultura minorizatuentzat. ●



Jexuxmari Mujika
Euskal Editoreen Elkarteko presidentea,
EREIN argitaletxea

Kultura oso garrantzitsua da. Herri bati kulturak ematen dizkio askatasunerako gogoa eta gaitasuna; nor izateko gaitasuna kulturak ematen dio. Alde horretatik, kultura hain da inportantea, erakundeen laguntza behar izanez gero, laguntasuna eduki behar duela. Baina kultura doan eman behar den galdetuz gero, esango nuke ez dela posiblea. Antzerki bat edo opera bat, esaterako, ezin daitezke beti dohainik eskaini; edo liburu guztiak ezin daitezke debalde eskaini. Izan ere, zer geratuko litzateke horiek eskainiz bizi behar duten pertsonekin?

Enpresa teknologikoak baino gehiago, teknologia ari da sartzen liburugintzaren esparruan. Horrek posibilitate berriak eskaintzen dizkigu, baina apustu berriak ezarri beharra ere bai. Hasteko, galdera berriak planteatzera garamatza teknologiak, baita galdera berri horien aurrean nola jokatu behar dugun aztertzera ere. Gainera, gaur eman ditzakezun erantzunek beharbada ez dute balioko bost urte barru, ordurako, galdera zein egoera desberdinak sor daitezkeelako. Teknologiak hori dakar, hain dira aurrerapen handiak eta azkarrak, horietara egokitzea ez dela beti erraza izaten enpresentzat, batez ere, gurea bezalako hizkuntza txikiekin dabiltzanentzat.

Bestalde, teknologia berriek autoedizioa eskaini dezakete; hau da, editorearen papera alde batera uzteko aukera eman dezakete. Hori horrela izanez gero, dudarik gabe, liburuen kalitatea eta sinesgarritasuna murriztuko lirateke nabarmen, editorearen papera izugarri garrantzitsua baita liburu baten sorkuntza-prozesuan. Kalitate mailari eusteko, liburu baten ideia sortzen denetik aurkezten denera arte, lan handia egin beharra dago; prozesua luzea da. Editorearen papera oso garrantzitsua izan da euskal literaturan, eta teknologia baliatuz gero figura hori baztertzeko, produktuaren kalitateak nabarmen egingo luke behera.

Papereko eta digitaleko euskarrien arteko bizikidetza, nire ustez, posiblea da, baina, oroz gain, ezinbestekoa. Ezin daiteke pentsatu bata bestearen aurka daudenik. Editoreak serio ari gara lanean, biak elkarren mesederako izan daitezen. Hori ez da erraza izaten beti, batez ere, etengabeko egokitzapen batean murgilduta egotera behartzen baitzaitu, eta horrek, zalantzak ez eze, kostu ekonomikoak ere badakartzalako. Euskal Herriko editoreak txikiak gara, baina jakin badakigu elkarrekin bizi behar dugula ezinbestean. Liburu digitalak behar-beharrezkoak izango dira, eta maileguak egiteko aukera egongo da aurrerantzean, baina paperezko euskarria funtsezkoa izan du orain arte euskarak, eta aurrerantzean ere hala izango dela uste dut. ●



Dabid Martinez
Blogaria, hack.in#badakigu elkarteko kidea,
Gaueko kooperatibaren sustatzailea

Kulturaren ekoizpenak kostu bat dauka, eta kostu hori nolabait ordaindu egin behar da: diruarekin, gure webguneko bisitekin, sare sozialetan gutaz hitz egin dezaten lortuz... Ekoizle bakoitzak aztertu beharko du zein den bere kostuaren itzulera, baina gauza bat argi daukat: kulturak askea izan behar du, modu librean aldatzeko edo banatzeko, beti ere, parametro legal batzuen euskarriarekin. Azken urteotan, ikusi dugu Ekuadorren, adibidez, Creative Commons bezalako lizentziek, kultura demokratizatzeaz gain, kalitatezko kultura ekoizteko aukera gehiago ematen digutela.

Enpresa teknologikoak liburugintzaren esparruan sartzeak kultura demokratizatzea dakarrela deritzot. Kultura euskarri desberdinetan aurkeztu beharrean gaude, kasu honetan, liburuak. Momentu oro, bezeroa izango da zein euskarritan kontsumitu nahi duen erabakiko duena. Nik, adibidez, nahiago dut euskarri digitala euskarri fisikoa kontsumitu ordez. Internetek eta sareak aukera desberdinak ireki dizkigu kultura ekoizleoi, eta horiek aprobetxatzen ikasi behar dugu; izan ere, sarea bera ez da gure etsaia, gure aliatua

baizik, eta horrela ulertu behar dugu sarearen esentzia.

Papereko eta digitaleko euskarrien arteko bizikidetza eman daitekeela uste dut. Aipatu dudan moduan, Internet bidez gure kultura hedatzeak gaur egun heltzen ez den txokoetara ailegatzeko aukera eskaintzen digu, eta ez hori bakarrik, kostuak ere murriztu ditu; aprobetxa dezagun. Bestalde, geroz eta gehiago gara kultura guk nahi dugun momentuan, tokian eta moduan kontsumitu nahi dugunok. Ni bezalako bezeroei horrelako zerbitzurik ez eskaintzeak bezero hori galtzea ekarriko du, eta kontuan izan behar da asko garela. Modu berean, bestetik, papera nahiago dutenak ere egongo dira, eta uste dut horiei nahiago duten euskarria eskaini behar zaiela. Kasu horretan, ekoizleak betetzen ez duen papera The Pirate Bay trackerrak beteko du. Beraz, ez al da egokiagoa hutsune hori guk geuk betetzea? ●



Magdalena Vinent
CEDRO elkarteko zuzendari orokorra

Gaur egun, kultura da gizartearen garapen jasangarrirako motorrik garrantzitsuenetako bat. Sektore kultural bezala, argitalpenena aberastasun iturri bat da, sorkuntza literarioa, zientifikoa eta teknikoa sustatzen baititu, eta, halaber, jakintzaren zabalkundea bultzatzen. Zentzu horretan, Espainiako estatuko kultura arloko industriarik garrantzitsuena dela ekarri behar da gogora: 53.600 lanpostu sortzen ditu, Barne Produktu Gordinera (BPG) %1,08ko ekarpena egiten du... Hori horrela, beste edozein ondasun edo zerbitzuk bezala, kulturak ere prezio bat dauka. Beste kontu bat da nork ordaintzen duen. Aukera bat baino gehiago dago, eta, besteren artean, zerbitzu kultural publikoak aipatu nahiko nituzke; esate baterako, liburutegiak.

Bestetik, argitalpenen alorreko sorkuntzak eta produkzioak ikerketa-lana eskatzen dute, eta inbertsio ekonomikoa, denbora... Hori guztia ordaindu egin behar da. Kulturaren langileek beste edozein sektoretakoek besteko eskubidea daukate egindako lanaren ordaina jasotzeko. Batetik, egindako lanarengatik; eta, bestetik, kulturaren dibertsitatea eta jarraipena bermatzeko.

Dena den, nire ustez, digitalizazioak, bere horretan, ez dauka ondoriorik egile-eskubideengan. Lanak esplotatzeko beste modu bat da, egile-eskubideak ezarrita izan ditzakeena. Hori bai, beharrezkoa da medioaren espezifikotasunera egokitzea. Distortsioa sortzen duena da besteen lana legez kanpo erabiltzea, edo besteen lanarekin negozioa egitea; pirateria, esate baterako.

Liburuen, aldizkarien eta egunkarien digitalizazioak sektorearentzako aukera bat izan behar du, eta izaten ari da. Onuragarria da egileentzat eta argitaletxeentzat, eta baita irakurleentzat ere, lan jakin baterako sarbidea daukatelako edozein lekutatik, modu eroso eta ekonomikoan. Ondarearen babeserako gakoetako bat da hori.

Egileak eta editoreak negozio bide berriak sustatzen dabiltza, eta dagoen legezko eskaintza digitala gero eta handiagoa da. Zoritxarrez, joera hori ez dator bat legezko kontsumoaren hazkundearekin. Kontrara, azken urtean gora egin dute liburuen kopia piratek. Egoera honen aurrean, neurri administratibo, legal eta judizial eraginkorrak ezartzea ezinbestekoa dela deritzogu; baina, batez ere, oso garrantzitsua da gizarteak gaiaren inguruko kontzientzia hartzea. Kultura sektorearen inportantziaz jabetu behar dugu, eta horren arabera jokatu.

Argitaletxeak egoera berrira egokitzen ari dira. Agente berriak iritsiko dira, eta beste batzuk joan, baina, zalantzarik gabe, egileak eta editoreak ezinbestekoak dira kalitatezko sektore bat lortzeko, non egile-eskubideek denen arteko oreka ezartzen duten.

Digitalizazio prozesuak ez dut uste eraginik daukanik sorkuntza-prozesuan, baina bai ari dela aldatzen produkzio, banaketa, zabalkunde eta sustapenari dagozkien prozesuak. Hori bai, egia da egileak gero eta kanpoko eragin handiagoa daukala, gero eta tresna gehiago daukala bere jarraitzaileengandik edo iritzi publikoarengandik hurbil egoteko. Horren adibide da idazteko sare sozialak baliatzen dituztenen bilakaerak goranzko joera daukala egunez egun.

Bateratze prozesu batean gaude murgilduta. Gaur gaurkoz, paperekoaren eta digitalaren arteko bizikidetza existitzen da, eta horrela izan behar du, baina oso zaila da esatea bihar zer gertatuko den. Eraldaketa oso urte gutxiren buruan gertatu da. Askok papera amaierara iritsiko dela diote, baina, irratiaren eta telebistaren ondorioz, egunkariak desagertuko zirela ere esan zuten bere garaian, eta ez da hala jazo. Hortaz, denborak esango du zein den etorkizuna. ■

Interinez gauaren errege

Inaxio Lopez de Arana
Idazle Eskolako ikasle ohia



Zuzendariarekin izandako sesio gogorrak barnea ubeldurik utzi dio. Nazka-nazka eginda dago orain duen lanpostuan: zuzendariak ez dio bakerik ematen, eta lankideek sarritan haren kontura barre egiten dute. Behin baino gehiagotan bururatu zaio lana uztea. Azkenaldi honetan, honelako hainbat krisialdi bizi izan ditu, eta guztietan antzera jokatu izan du beti: indarra bildu, gaueko arropa dotorea jantzi, eta "Kaskarin"era inguratu da, auzoko diskotekara, bere saminen aringarri. Eta hala egin du gaur ere.

Txoko ilun batetik, musikaren erritmoa jarraitzen dabil, burua atzera-aurreraka astinduz. Dakizkien abestiak gogoz abesten ari da, kokotsa altxa eta begiak itxita. Ez du nabari zeinen ahots txarra duen, musikaren bolumenak ia oso-osoan estaltzen baitio jarioa. Ez dakizkienak, ingelesez direnak batez ere, hortzartean abesten ditu, inor bere ezjakintasunaz ohar ez dadin. Batek daki zenbatgarren tragoa den eskuan duena. Zuen lotsa apurra ere galdu du dagoeneko, eta astiro-astiro hankak mugitzeari ere ekin dio.

Tupustean, atzealdetik agertu zaizkion bi eskuk estali dizkiote begiak. Nor izan daitekeen pentsatzen hasi da. Eskuinera jiratu du gorputza, eta ezkerrera gero, baina, atzean duen pertsonak mugimendu berberak egin dituenez, ezin izan du ezertxo ere ikusi. Bat-batean, bularrak sentitu ditu bizkar aldean eta neska dela konturatu da. Halako batean, nor den galdetu dio neskak. Burura etorri zaizkion izenak esaten hasi da: Ane, Lorena, Miren, Ziortza... Igartzen ez duela ikusita, etsita-edo, begiak aske utzi dizkio. Jakin-minez, bizkor eman du buelta eta txundituta geratu da Interinez. Ezer esaterako, neskak bi musu eman dizkio. Aspaldian elkar ikusi gabe daudela-eta, nola dabilen galdetu dio bitarteko funtzionarioari, eta hortik abiatuta hasi dira kontu-kontari.

Ordu erdi daramate berriketan, eta diskotekako ohiko bezero batzuk, halako gau xelebreetan Interinezekin hamaika trago edanak, begira-begira daude jadanik. Imintzioka ari dira neska ederra dela eta espabilatzeko adierazi nahirik. Bitarteko funtzionarioa gero eta larriago dago, oraindik ez baitaki nor duen aurrean. Klaseko neska guztiak errepasatzen hasi da, futboleko taldekideen arrebak, Jaurlaritzako lankideak eta lankide ohiak, berarekin oheratu direnak (banakaren bat) eta oheratu gabeak (beste guztiak, asko eta asko alegia)… baina alferrik.

Neskak hizketan jarraitzen du, gero eta solteago; Interinez, berriz, gero eta larriago. Estrategia hoberik bururatu ez eta komunera doala esan dio, eta berehalaxe itzuliko dela. Komuneko ate handia ixtean ito egin da musika. Bizkarra atearen kontra jarri eta hasperen egin du.

Aurrez aurre dituen txizontzien gainean dauden edalontzietako kalimotxo eta kubata hondarrek kolorea galduta daukate urtutako izotzak direla-eta. Interinezek ere antzera ikusten du bere etorkizuna, eta esku batekin bakeroetako poltsiko bati tira egin dio beste eskua hobeto sar dadin. Plastikotxoa zabaldu, eta harriaren gainean utzi duen karnetean irauli du.

Zati haiek sudurretik sartzeko handiegiak direla iritzita, nortasun-agiriaren ertzarekin zanpatuz apurka-apurka birrindu ditu. Jendea sartu-irtenean dabil, baina inor ez da harritzen Interinez horrelako eginkizunetan ikusita. Gastatu ez duen billete bakarra hartu diruzorrotik, kiribildu eta bi muturretako bat sudurrera hurbildu du. Egindako tutuaren beste punta birrindutako hauts zuriaren gainean jarri, eta, arnasa indartsu hartuta, prestatu duen marra zuria desagerrarazi du.

Komuneko ateari oinarekin bultza egin eta nortasun-agiria ez ezik, nortasuna bera ere bertan utzita irten da. Hara eta hona begiratu du, baina ez du inon ikusi. Diskotekako ohiko bezeroek barran bermatuta jarraitzen dute. Haietako batengana hurbildu eta lehentxeago berarekin hizketan ibili den neska non dagoen galdetu dio. Harriturik begiratu eta ez dela inongo neskarekin hitz egiten aritu esan dio, beti bezala haiekin egon dela, uso-pasan eta zurrutari eman eta eman. Barrara joan da eta sudurrean sartu berri duen azken hamar eurokoarekin beste kubata bat eskatu du. ■

Ariketak85

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

1. Errezeta honetako hamar hitz oker idatzita daude Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua*ren arabera. Identifikatu eta zuzen itzazu:

Txokolate moussea egiteko, honako osagai hauek erabiliko ditugu: 4 arraultza, 100 gr. azukre, 10 gr. txokolate, 75 gr. gurin, baso bat esne eta 6 ginda.

Banatu gorringoa eta zuringoa. Gorringoei azukrea gehitu eta ondo nahastu, tamaina bikoiztu eta zuritu arte. Txokolatea bainu marian jarri, eta, denbora beretsuan, gurina bigundu burduntzali batean. Lehenengo, txokolatea gorringoekin nahasi, eta, gero, gurina gehitu.

Zuringoak ere ondo nahastu, elur puntu gogorrean jarri arte –hau oso garrantzitsua da, borboilak izan ditzan–, eta kontu handiz erantsi aurreko guztiari. Mousse trinko eta krematsua nahi baduzu, dagoen moduan utzi, banatu banako kaikuetan, eta hozkailuan gorde harik eta zerbitu arte. Mousse arina gustokoagoa baduzu, ostera, bota esne hotz-hotza, nahastu irabiagailuarekin aparra atera arte, eta bota kopatara.

Moussea apaintzeko, erabili gindak edo bestelako arnariren bat. Usain-bedarrak ere balia daitezke horretarako.

Sukaldari batzuek diotenez, ondo xehetutako hurrak gehi dakizkioke txokolateari, moussea goxoago atera dadin.

2. Lotu hitz bakoitza bere sinonimoarekin:

aipu	hasiera
andana	ahaide
hastapen	gehienetan
eskuarki	engainu
askazi	aipamen
erlastura	heldu
umo	talde
iruzur	afonia

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Ariketak 85

3. Zein aditz dagokio izen bakoitzari?

1. a. etekina irabazi
   b. etekina atera
2. a. men egin
   b. men esan
3. a. ernai izan
   b. ernai egon
4. a. hautua eman
   b. hautua egin
5. a. hizpidea egon
   b. hizpidea izan
6. a. adarra jo
   b. adarra hartu
7. a. piper egin
   b. piper joan

4. Bilatu definizio hauetako bakoitzari dagokion aditza:

1. Lehertu, barruko indarrez hautsi.
2. Zerbait, berri bat bereziki, jendearen belarrietara helarazi.
3. Gardentasuna edo garbitasuna galdu edo kendu.
4. Norbaiten edo zerbaiten eskuetatik edo mendetik askatu eta ihes egin.
5. Norbaiti norbait edo zerbait aipatu edo adierazi, aintzakotzat har dezan.
6. Zerbait egin edo burutzeko ezintasuna sortu edo hartarako oztopo gertatu.
7. Bereziki, gaitasuna edo jardunbide bat hazi edo haziarazi.

a. itzuri
b. eragotzi
c. zartatu
d. hedatu
e. lausotu
f. gomendatu
g. garatu

5. **Azken zenbaki bietako “Gramatika” atalean esaldi barneko komaren erabileraz aritu gara. Saia zaitez esaldi hauen puntuazioa hobetzen.**

Zein da ikastaroaren helburu nagusia?
Helburu nagusia da administratuaren egoera juridikoa aztertzea, eta interesdunaren estatutu juridikoa ulertzea.

Noiz bukatzen da eskabideak aurkezteko epea?
Uztailaren 16an bukatzen da 20:00etan.

Noiz argitaratuko du IVAPek onartutakoen behin-behineko zerrenda?
Behin-behineko zerrenda uztailaren 28an argitaratuko du IVAPek.

Nola argituko ditut ikastaroan sortzen zaizkidan zalantzak?
Plataformako foroaren bidez, formula ditzakezu zalantza guztiak.

Zenbat jarduera gainditu behar ditut azken azterketa egin ahal izateko?
Ikastaroko 3 jarduera, gutxienez, gainditu behar dituzu.

Zenbat galdera izango ditu azterketak? Zein motakoak?
40 galdera test motakoak.

Zenbat galdera asmatu behar ditut azterketa gainditzeko eta titulua eskuratzeko?
25 galdera asmatu behar dituzu, azterketa gainditzeko eta titulua eskuratzeko.

Soluzioak85

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ


IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

1.

arraultza*	**arrautza**	zerbitu*	**zerbitzatu**
ginda*	**ginga**	gusto*	**gustu**
beretsu*	**bertsu**	arnari*	**fruitu**
burduntzali*	**burruntzali**	bedar*	**belar**
borboil*	**burbuila**	xehetu*	**xehatu**

2.



3.

1. b
2. a
3. b
4. b
5. b
6. a
7. a

4.

1. Lehertu, barruko indarrez hautsi. **c.** zartatu
2. Zerbait, berri bat bereziki, jendearen belarrietara helarazi. **d.** hedatu
3. Gardentasuna edo garbitasuna galdu edo kendu. **e.** lausotu
4. Norbaiten edo zerbaiten eskuetatik edo mendetik askatu eta ihes egin. **a.** itzuri
5. Norbaiti norbait edo zerbait aipatu edo adierazi, aintzakotzat har dezan. **f.** gomendatu
6. Zerbait egin edo burutzeko ezintasuna sortu edo hartarako oztopo gertatu. **b.** eragotzi
7. Bereziki, gaitasuna edo jardunbide bat hazi edo haziarazi. **g.** garatu

5.

Zein da ikastaroaren helburu nagusia?
Helburu nagusia da administratuaren egoera juridikoa aztertzea( )eta interesdunaren estatutu juridikoa ulertzea.

Noiz bukatzen da eskabideak aurkezteko epea?
Uztailaren 16an bukatzen da(,) 20:00etan.

Noiz argitaratuko du IVAPek onartutakoen behin-behineko zerrenda?
Behin-behineko zerrenda(,)uztailaren 28an argitaratuko du IVAPek.

Nola argituko ditut ikastaroan sortzen zaizkidan zalantzak?
Plataformako foroaren bidez( )formula ditzakezu zalantza guztiak.

Zenbat jarduera gainditu behar ditut azken azterketa egin ahal izateko?
(Gutxienez,)Ikastaroko 3 jarduera gainditu behar dituzu(, gutxienez).

Zenbat galdera izango ditu azterketak? Zein motakoak?
40 galdera(,)test motakoak.

Zenbat galdera asmatu behar ditut azterketa gainditzeko eta titulua eskuratzeko?
25 galdera asmatu behar dituzu( )azterketa gainditzeko eta titulua eskuratzeko.

Euskarazko azpitituluak, mundua ikusteko betaurreko

Urtzi Odriozola
informatika ingeniaria (CodeSyntax)

Azken inkesta soziolinguistikoak agerian utzi du aspalditik askoren kezka zena. Erabilera eta ezagutza formalean euskarak gora egin badu ere, kale erabilerak atzerako joera hasi omen du. Egia esan, ez zait batere harritzekoa iruditzen gure hizkuntzak eskolatik kanpo dituen gabeziak zeintzuk diren ikusita. Etxeko goxotasuna kenduta, eskola da leku askotan geratzen den edo egon izan den arnasgune bakarrenetarikoa. Haur zein heldu, etxe eta eskoletatik atera bezain pronto ohartzen dira aisialdia eta lana ia erabat erdaldunak direla.

Gainera, garaiak ere asko aldatu dira. Aspaldian euskararen arnasgune ziren herri euskaldunetan, asko aldatu zaigu egoera politikoa eta, oro har, bizimodua. Gure arteko harreman bideak erabat desberdinak dira. Orain ez oso gutxi entzun nion bati pantailen gizartean bizi garela. Mugikorrak erabat hedatuta dauden aro honetan, esango nuke ikus-entzunezko gizarte batean bizi garela eta berebiziko garrantzia dutela, batez ere, gazteenetan. Pantaila horiek betetzen dituzten eduki gehienak zinemako filmak, telebistako telesailak edo Interneten sareratzen diren bideoak dira, eta horiek betetzen dute gure aisialdiaren zati handi bat.

Hutsune hori betetzeko, badago bikoizketa lehenesten duenik. Hori, ordea, oso zaila ikusten dut, uste baitut zine eta telebistan sortzen den material andana bikoizteko komunitate txikiegia garela. Alternatiba beraz, azpitituluak izan daitezke, bikoizketa izanik haren osagarri. Bikoizketa, batez ere, txikienei eskaini beharreko euskarazko edukiak bermatzeko. Hizkuntza normalizatua duten Europako beste herrialde txikiei begiratzen badiegu, ohartuko gara gehienek azpitituluak erabiltzen dituztela. Arrazoi nagusia ekonomikoa da, noski; Urtzi Urrutikoetxeak esan izan du 100.000€-ko aurrekontuarekin bizpahiru film bikoiztu ahal izango genituzkeela, aldiz, 25 edo gehiago azpidatzi. Azpituluek gainera, malgutasun eta azkartasun handia eskainiko liguke-te. Film edo telesailak argitara atera bezain laister euskarazko ikuspegi batekin erakusteko moduan izango baikinateke.

Horrez gain, azpidatzien ohitura ondo zabalduz gero, talde txiki edo norbanakoek oso erraz euskaratuko lukete edozein film beren kabuz. Adibidez, azpituluak.com webgunean horretan ari dira lanean, eta euskaratutako 500 film luze izatera iritsi dira (telesailak, laburrak eta erdimetraiak aparte). Gainerakoan, bikoizketa itxaron beharko litzateke edo zuzenean gazteleraren zubia erabili. Hirugarren hizkuntza bat ikasten ari direnek badakite film original bat ikustean, hizkuntza horretara belarria egiteko aukera dagoela. Behin esperientzia hau probatu eta ohitu ostean, oso zaila egiten da gaztelaniaz entzutea, demagun, Miamiko ingeles «kutsatua» duen baten eta Kubatik joandako etorkin baten arteko elkarrizketa osorik. Mundua dagokion hizkuntzetan ikusi beharko genuke, euskarazko azpituluen zubia erabilita, noski. Gainerakoan, etxeko produkzioa euskaraz, baina kanpoko guztia gaztelera-ren filtrotik pasata iristen zaigu. Mundua gazteleraz ikusten dugu, eta euskara bazterreko edo etxeko hizkuntza bezala barneratzen. Bide honetan, azpidatzietara ohituta dagoenak gaztelerari eskaintzen dion denbora murriztu eta euskarari emango lioke.

Bestalde, iruditzen zait azpituluena hautu oso eraginkorra dela administrazio publikoak eta erakundeek euskarari zentralitatea emateko. Azken aldian, sarean ikusten ditudan bideo askotan gertatzen ari den praktika bat da edukia euskaraz ematea, baina hizkuntza ezberdinetan azpititulatuta. Hau da, eduki bera bi hizkuntzatan editatu edo bikoiztu beharrean, euskara hutsean sortzea eta nahi adina azpititulurekin argitaratzea. Horrek ere bi abantaila nabarmen ditu: alde batetik, euskarari zentralitatea, ikusgarritasuna, hegemonia, eta abar ematen dizkio, eta bestetik, merkeagoa da. Baina aisialdian benetako aldaketa egin nahi bada, kuotak jarri beharko dira, zineman, telebistan eta orokorrean aisialdia eskaintzen duten lekuetan, hau da, diskriminazio positiboa deritzona erabili beharko da antolatzen diren ekimen eta jaialdiei diru-laguntzak ematerakoan. Kontuan izan behar dugu, euskara ez dela euskaradunon ardura soilik, eta munduan lekutxo bat izan nahi badu, gure lurralde honetako erdarek utzi beharko diotela lekua. ■

MOOCen sasoia, etengabeko formakuntza librearen aroa

Gorka Jakobe Palazio
EHUko irakaslea

MOOC siglak *Massive Open Online Course* esan nahi du, hau da, Lineako Ikastaro Masibo Irekiak. Irakaskide bati azaldu behar diodanean zer den MOOC kontzeptua, nik beti erabiltzen dut Wikipediaren simila. Wikipedia entzikopediaren arloan izan dena, MOOC sistema formakuntza eta ikaskuntzaren arloari dagokio eta orain arteko irakaskuntza sistemari haustura dakarkio. Jakintza metatu finkoaren esparrukoa da Wikipedia; MOOCak, ostera, ezaguerak edo jakintza transmititzearen arlokoak dira. Baten batek ere hori errefusatuko du OpenCourseware izeneko sistemaren ontasunak gogoratuz; baina, azken honek ez du planteatzen, MOOCek bezala, ikasmaterialak etengabe berritzearen izaera eta ikasteko sistema aldatzea. Izan ere, MOOCen ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

1. Irekiak dira, hots, munduko edonork ikus ditzake ikasmaterialak.
2. Masiboak izateko sortuak dira, irekitasunak ematen baitio ezaugarri hori.
3. Lineako ikaskuntzaren parte dira, Internet bidez ematen baitira ikastaroak. Ikasmaterialak prestatzeko batzuetan urtebete ematen da. Urtean bizpahiru aldiz eman ohi dira izena ematen duen edonorentzat.
4. Ikastaro berritzaileak diren aldetik, egitura eta ezaugarri desberdinak eduki ditzakete tipologiaren arabera. Baina, bistan da kurtso baten egitura eduki ohi dutela, ikaskuntza prozesua abiarazi ahal izateko.

Lehenbiziko MOOCak Kanadan sortu ziren George Siemens eta Stephen Downes irakasleei esker, Manitobako unibertsitatean. Irakasle berritzaile horiek emandako lehen MOOC haren titulua honako hau izan zen: *konektibismoa eta jakintza konektibista*. Dena den, Dave Cornier eta Bryan Alexander ere aipatu behar ditugu hastapeneko lehen sustatzaile bezala, bi irakasle horiek izan zirelako terminoa sortu zutenak 2008an. Irakasle horiek OER (*Open Educational Resources*) arlotik, hots, baliabide irekien esparruan zuten interesetik atera zen ideia, nahiz eta ALISON hezkuntza-hornitzaile irlandarra ere aipatua den MOOCen lehen sustatzaile bezala. Hala ere, kontuz ibili behar da baieztapen batzuekin, *freemium* eredua hartzen dutelako zenbait plataformak: oinarrizko ikastaroa doanekoa izan arren, balio erantsiko gauzak erabiltzen dira ikastaroan dirua irabazteko: liburuak, kontsultak egiteko aukerak, ariketen zuzenketa edo bukaerako agiriak.

MOOCen arrakasta 2012an hasi zen, mende honetako zientzialari ospetsuena omen den Sebastian Thrun alemanari esker hein batean. Googlek betaurreko ospetsuetarako eta gidaririk gabeko automobila egiteko fitxatu zuen Thrun-ek apostu handia egin, eta dirutza inbertitu zuen Udacity MOOC plataforma sortzeko. Horrez gain, Coursera, Canvas eta batez ere edX izan dira erreferentzia puntu nagusiak MOOCen arloan azken urteotan, hezkuntza ofizial eta ez-ofizialaren arteko muga lausotuz. 2012an, Coursera, edX eta Udacity hiru webguneetan soilik, 100 milioi dolar baino gehiago inbertitu ziren. Web 2.0ko sistema batekin konparatzearren, aipa dezagun Twitter plataformak 5 milioi dolar baino ez zituela jaso inbertsioko lehen bueltan. Horrek argiro adierazten du zer apustu egin den MOOCen alde.

MOOCen tipologia, plataformak eta osagaiak

MOOCak zenbait modutara antola daitezke. Eredu nagusiak gaur egun, xMOOC eta cMOOC[1] dira. X letra dutenetan, oinarria bideo bidezko material propioetan jartzen da. Ikastaro erakargarriak dira eta agian ez dute apurtzen irakaslearen zentralitatearekin, cMOOCetan egiten den bezala. Hortaz, xMOOCak eduki aldetik aberatsak dira eta, normalean, kurtsoetan egitura hasieratik markatzen da. Besteek, ostera, konektibismoari egiten diote men eta ikasleei protagonismoa ematen zaie ikaskuntza soziala gauzatzeko asmoz. George Siemens eta Stephen Downes irakasleen hezkuntza-eredu konektibistari atxikirik ageri ohi dira cMOOCak. Hala ere, badira beste batzuk ikaslanen eta problemen soluzioak bultzatzen dituztenak, xMOOC eta cMOOCen osagai batzuk ere kopiatuz. Ikaslan edo ariketen burutzean oinarritzen diren MOOCak hibridoak izaten dira, ohiko irakaskuntza instrukzionala eta konektibismoa agertzen baitira.

Ikastaro konektibistak gauzatzeko plataformak wikiak izan daitezke, sistema horietan irakasle zein ikasleek hobeto partekatzen baitute dena (ekaiak, erre-

1. Eredu honetan sakontzeko, ikus: http://connectivistmoocs.org

MOOCen ohiko osagaiak



Bideoak eta bideo-presentazioak. Eskuarki laupabost minutuko bideoak izaten dira: oso laburrak, alegia.



Feedback-a lortzeko, aukera anitzeko galderak egin ohi dira, ikasleari eta sistemari datuak emateko. Irakaslearen papera inportantea da atal honetan.



P2P ikaskuntza. Ikasleek proposamenak egiten dituzte, ikertu egiten dute eta parte-hartzaileen galderei erantzunak bilatzeari ekiten diote.

Egilea: Gorka Jakobe Palazio, 2014, CC by-sa lizentziapean. **Irudiak:** OpenClipArt. **Irudien berriztatzea:** Gorka J. Palazio. Euskal Herriko Unibertsitean egina. Leioako Campusa.

ferentziak, blogetako postak...). Beste MOOCetan, x letra daramatenetan, ostera, bestelako plataformak erabiltzen dira: LMS ohikoak (Moodle, Chamilo...) edo espresuki egindakoak xMOOCak jartzeko (Open edX, Canvas, OpenMOOC, Class2go...).

Ikastaro libre hauen osagaiei dagokienez, hainbat baliabide topa daitezke. Konektibistak diren kurtsoetan baliabideak anitzak dira, ikasleek zein irakasleek Interneteko hainbat OER (hezkuntzako baliabide irekiak) erabiltzen baitituzte jakintza sustatzeko. Bestalde, xMOOCetan baliabide gutxiago agertu ohi dira, batzuetan bideoak eta galdetegiak baino ez. Dena den, nagusiki hiru dira cMOOCetan eta xMOOCetan: bideoak, galdetegiak eta P2P ikaskuntza, goiko irudian ikusten den bezala. P2P ikaskuntza lortzeko hainbat ariketa erabil daitezke, sare sozialek eta beraien tresnek ematen dizkiguten aukerak baliatuz (Google Drive eta Docs, Pinterest, Youtube...).

Bestalde, MOOCen iraupenaz eredu desberdinak ikus daitezke. Eskuarki 4-6 astetan burutzen dira ikastaroak, baina 15 astekoak ere badira. Australiako Open2Study plataforman 4 asteko ikastaroetan kurtsoa burutzen dutenen ehunekoa 25-30 artean dago. Coursera-n eta beste batzuetan, ostera, % 10ekoa izaten da arrakasta kopuru hori. Dena den, MOOCen ereduan normaltzat hartzen da hilkortasun handia egotea kurtsoen edizio desberdinetan. Izaera irekiagatik gertatzen da hori.

Disrupzioa irakaskuntzan MOOCen bidez

Harvardeko Negozio Eskolako Clayton M. Christensen irakasle mormoi ospetsuak arrakasta handia lortu zuen 2008an liburu bat idatzi zuenean. Christensen-ek *Disrupting Class* titulua jarri zion liburuari, eta idazlan hartan argiro azaldu zuen hezkuntza-sistema heldurik edo umo zegoela jada aldaketa egiteko onlineko sistema informatikoei esker. Informatikak aukera eman behar zigun ikasleen ikasteko moduei kasu egin eta kustomizazioa bultzatzeko. Disrupzioa edo arras aldatu beharra zegoen, hezkuntza-sistema, arbelaren sistema klasikoari itzuri eginez, ikasleek beraiek ere eskatuta, Wesch antropologia irakasleak bideolan ospetsuan erakutsi bezala[2].

2012 MOOCen urtea izan zen; puntapuntako unibertsitate estatubatuarrak lehia bizian abiatu ziren MOOCak eskaintzen lineako plataforma berrietan. Ikastaro hauetan ekaiak guztien eskura daude; irekiak dira baina urtean zehar itxi egiten dira edizio berriak prestatzeko, etengabeko berrikuntza eta hobekuntza helburu izanik. Hortaz, sistema berritzaileak dira, eta hasieran gradu-ondoko hezkuntzan eta formakuntza profesionalean hedatu beharko dira, nahiz eta MOOCen helburua ere hezkuntza ez-ofiziala bereganatzea den. Estatistikak harritzeko modukoak dira: 2014ko lehen hiruhilabetean asko hazi zen MOOCen kopurua munduan; zehazki, % 62, 1.369 izatetik 2.230 izatera. Azken urtean, munduko 200 unibertsitatetako irakasleak aritu dira jada MOOCak prestatzen, masiboki 6,5 milioi ikasleri bestela irakasteko. Horrez gain, diru asko inbertitu da MOOCak jartzeko plataformetan. Dagoeneko asko dira horrelakoak munduan zehar barreiaturik, eta edX, Coursera eta Canvas dira erabilienetarikoak.

Nola topatu MOOCak eta aplikazio mobilak?

Azken urteotan hainbeste MOOC agertu dira ezen bilatzaileak ere sortu behar izan dituzten etengabe sortzen diren MOOCak aurkitzeko. Bilatzaile erabilienak honako hauek dira: CourseTalk, CourseBuffet, Class Central, Knollop, Mooctivity, Moocse eta Moocsengine.

Nolanahi den ere, autoformatzeko erreferentzia nagusiak, MOOCei dagokienez, honako hauek dira: Academic Earth, ALISON (Eire), Canvas.net, Coursera, Codeacademy, FUN (frantsesez), Hexlet (errusieraz), Khan Academy, edX, FutureLearn, Iversity (alemanez), Lynda, MiriadaX (gaztelaniaz), Open2Study (Australia), OpenUpEd (Europar Batasuna), Saylor.org, SkilledUp, Udacity eta Udemy. Gure herrira etorriz, 2014ko maiatzean sortutako Metamooc[3] izeneko MOOC plataforma sortu da Bizkaian. Horri gehitu behar Eusko Ikaskuntzak Asmoz fundazioaren bidez egindako emaria, Open edX plataformaren inguruko gaztelaniazko eskuliburuak sortzeko[4].

Bestalde, aplikazio mobilei dagokienez, badira jada zenbait aplikazio, MOOCen inguruko berriak jasotzeaz gain, ikastaroak kudeatzeko nola edo hala. Udacityk, esaterako, Apple enpresaren dendan badu aplikazioa, eta Udemyk 2012an jarri zuen iPad-erako aplikazioa. Dena den, Google Play eta App Store-n MOOC hitza bilatu eta zenbait aplikazio aurkituko ditugu. ■

2. Ikasleen ikuskera gaur egun (A vision of students today) http://youtube.com/watch?v=_12JESAcVPw

3. http://metamooc.com
4. http://edx.asmoz.org

Umoreaz, umore onean

Egia, gezurra da euskaldunak serioak garela

Jon Arizkun
Kazetaria



Orain baino lehen, duela lau urte, Forgesi elkarrizketa egin zioten *Administrazioa Euskaraz* aldizkari honetan bertan. Handik aldatu dugu hona ondoko pasartea:

«–Ez dakit zer dugun hobe, futbolaz jardun, edota politikaz… –galdera.

–Tira, hobe, hobe… Hobe Elsa Pataki… –Forgesen erantzuna.

–Edo gauza bera da futbolaz nahiz politikaz hitz egitea?

–Ez, ez da gauza bera Shakyraz edo Beyonceri buruz hitz egitea. Bidenabar, horiek gauzaaaaaaaaaaak…

–Lehen, erlijioa zen aitzakia, hura opioa…

–Bai… Baina, aukeran, nahiago dut ni izterrondo batek itsutzea, "betierekotasun saltzaile" batek baino».

Umorez ari zen Forges, kazetariari adarra joka, irakurleari keinuka etengabe. Uxoa Anduaga soziologoak ETB1eko *Tribuaren berbak* saioan esandakoaren harian, fenomeno soziala da umorea, jendarte nahiz lagunartekoa. Beti ohi da deigarri, eta, are, harrigarri, inor bakarrik eta bere kontura barrez ari dela ikustea. Umoreak, gainera, haustura dakar, era batera nahiz bestera ohiko egoera zartatu ohi du, irria nahiz algara eraginez. Hori, jakina, atsegina da, eta atsegingarri. Hortik datozke, esaterako, barreterapia saioak, non umoreak gure osasunari ekartzen dizkion onurak modu kontzientean baliatzen diren. Arestian aipatu telesaioan bertan Felix Zubia sendagileak esandakoaren arabera, barreak tentsioa jaitsarazten du, on egiten dio bihotzari, giharrak indartzen ditu –abdominalak egitea bezainbat–, infekzioen aurka gure organismoak dituen defentsak sendotzen ditu eta gaixotasun autoimmuneei on egiten die. Umore onak bizitza luzatzen duela ere esan izan da.



Agirre lehendakariaren etxean, umorea

2012an Jose Antonio Agirre lehendakariaren seme Josebaren hitzak jaso zituen Aitziber Laskibar kazetariak *Berria* egunkarian. Agirre Zabala familiak bizi izandako egoera gogorrak gorabehera, «umorea» aipatu zion lehendakariaren semeak Laskibarri. «Umorea da etxeko oroimen bat. Gure etxean umore onean bizi ginen. Jose Antonio Agirre umore handiko gizona zen; ia bromista, esango nuke». Eta umorearen aipua, berriro, Eguberrietako ospakizunetan: «Aitarentzat Gabon Eguna garrantzizkoa zen. Afariaren ondoren, otoitzak, opariak eta umore ona izaten genituen».

Klixea: serioak

Uxoa Anduagaren arabera, umorea gauzatzean, norberaren taldea hartu ohi da erreferentziatzat. Huraxe da normaltasunaren eredu. Talde orekatua bide da. Nor bederarenak ez diren jende multzoak, ondorioz, markaturik geratzen dira, «bereziak» ditugu. Horra, adibidez, gipuzkoar eta bizkaitarrei buruzko hainbat txiste eta txantxa… 2011n, Euskal Herriko Unibertsitateak Bizkaia Aretoa ireki zuen Bilboko campusean. Delako aretoak hainbat gela ditu, bakoitzak bere izena duela: batean, Koldo Mitxelena, bestean, Pio Baroja; han, Eduardo Chillida; Jorge Oteiza, hemen… Orduko alkate Iñaki Azkuna zendu berriak, esaterako, txisteari heldu zion inaugurazio ekitaldian, esanez Bizkaia Aretoa izan eta Bilbon egonagatik ere gela haietako izenen artean gipuzkoar gehiegi ageri zela… Txisteak, ohi denez, irriz jantzi zituen bilbotar askoren ezpainak, baina ez giputzenak... Halaber, baserritarren eta kaletarren gaineko kontaera irrigarriak: «Ba omen zen behin Donostiara sekula jaitsi gabeko baserritar bat. Trenean ibili behar zuela sartu zitzaion buruan, eta geltokira joan zen. Hantxe gure baserritarra, geltokian alde batetik bestera oinez, ttipi-ttapa, ttipi-ttapa. Hamar minutu, hogei minutu, ordu erdi bat, eta ttipi-ttapa, ttipi-ttapa, alde batetik bestera oinez gure baserritarra. Halako batean, geltokiko arduraduna etorri zaio eta esan dio:

–Baina, gizona, jarri zaitez. Zure trenak denbora behar du oraindik. Jarri trankil. –Aizu, ni baserritarra naiz, baina ez analfabetoa! Garbi asko jartzen du hor *anden*!».

Esan ere izan da euskaldunok serioak garela, baina ez da horrelakorik. Uxoa Anduagaren hitzetan, XIX. mendean, Espainian, euskaldunei buruz sortu zituzten txisteen ondorio da uste hori. Kike Amonarriz soziologoak ere behin baino gehiagotan irauli behar izan du klixea: «Ez dakit nondik sortu den euskaldunak serioak garelako gezur hori. Topikoa, hala ere, ez da euskaldunak serioak garela, euskaldunak Andaluziako jendea baino serioagoak garela baizik. Seriotasun kontu hori dela-eta, hamaika aldiz egin dut galdera: 'Euskaldunak serioak garela? Nor baino serioagoak, adibidez?'. Erantzun berbera jaso dut beti-beti-beti, eta salbuespenik gabe: 'Andaluzak baino serioagoak, esate baterako'. Horrek, noski, zerikusi zuzena du errealitate bat topiko eta sinbolo nazional bilakatzearekin. Horri gehitu behar diogu erdaldunek ez dutela euskarazko umorearen berririk, eta duela bi mende euskaldun askok ez zekiela erdaraz. Beraz, Amerikako indioekin gertatu zen bezala, mutuak eta, gure kasuan, serioak

ginen. Amerikako indio haiek, aldiz, beti ageri ziren irribarretsu. Nik esatera, egia da, beharbada, Andaluziako jendearen artean gurean baino ohikoagoa izan daitekeela jende gatzduna aurkitzea –beharbada bai, beharbada ez–, baina umoreaz galdetu eta euskaldun denoi burura datorkigun jende grazioso mota bakarra andaluziarra izatea ez da kasualitate hutsa. Hor, eraikuntza ideologiko garbia dago». Horri dagokionez, gatzdun izateari buruz Virginia Imazek behin halako *Argia* aldizkarian esanak hona aldatzea komeniko da: «Grazia duenak Jainkozko dohaina du: egiten duena egiten duela, harrera ona izango du. Arrakasta. Jaiotzen denetik hiltzen den arte, bedeinkazio guztiak izango ditu. Beste batzuek, aldiz, lan handiago dute. Kultura gorabehera ere bada. Andaluziarrak guk baino grazia handiago omen dute. Fama. Metafora gehiago erabiltzen omen dituzte, exageratzeko joera handiagoa, azentu berezi bat, eta abar. Horrek guri, berriz, grazia egiten».

Umorea eta ziria

Gure tradizioan, bestalde, nahi beste dira umoreaz baliatu diren egileak. Ahozkoan, makina bat sukaldetan kontatu izan dira Fernando Amezketarraren ziriak. Barrea eragitekotan, urte askoan ez zen haren parekorik hainbat bazterretan. Bertsolaritzaren historian, lehenengo bertsolari handitzat jo izan dute Amezketarra, «adarjotzaile umoretsu» moduan ere definitua. Eta adarra jo behar denean, ezin esan euskalduna horretan buru-belarri, bekoki-adar, saiatu ez denik. Koldo Izagirreren *Euskal Lokuzioak* (Hordago, 1981, nahiz intza.armiarma.com) lanean nahizu-nahizu aurkituko ditugu egia horren frogak. «Umorea» sarreraren baitako lokuzioak ditugu honako hauek: adarjotzaile, arpajotzaile, gaita oneko, hari oneko, zirisartzaile… eta adarra jo, arpa jo, Astigarraga aldetik jo, flauta jo, gaita onean egon, gaitan ibili, harpa jo, kaila jo, (inori) musutik eman, teniola jo, tronpa jo, ziria sakatu / sartu, zirikada sakatu / sartu, zirikoa sartu… Horiekin batera, «Ziria» sarrera ikusteko agintzen digu aipatu lanak, eta, bertan, hauxe adierazten digu Izagirrek: «Umorerik ez dutenak izan ohi dira, maiz, zirikatzaileenak». Eta hortik, zirikatzailetik, esan nahi baita, ondo osaturik gaude gurean, hala ahozkoan nola idatzizkoan.

Deba inguruan izan omen zen. Astojana prestatu zuten, baina, ohi denez, hantxe buru handi itsusia, begiak tzar, tzarragoak hortz-belarriak: «Eta zer egin behar dugu buruarekin?» bataren galdera, eta bestearen erantzuna, bat-batean, guztiz inozo eta batere maltzurkeriarik gabe: «Zer egingo dugu, bada! Arrainzopa!». Buruarekin legea den moduan. Horra herri-jakintza, eta umorea. Edo, gaur egunean, bi neska-mutilen arteko pasadizoa. Maria ez da goizean eskolara joan. Arratsaldean joan delarik, hantxe du laguna, Aitor. «Zergatik ez zara gaur goizean ikastolara etorri?», Aitorrek

Fernando Amezketarra, 250 urte aurten

Tradiziozko euskal umorearen adibide ezaguna da Fernando Amezketarra, Fernando Bengoetxea Altuna (Amezketa, 1764). Ahoz aho transmititu ziren haren kontu eta bertsoak, Gregorio Mujikak (Ormaiztegi, 1882 – Donostia, 1931) jaso eta idatzi zituen arte. Inoiz entzun duenak nekez du ahantziko Pitxitarena... Hona Mujikak idatzi zuen eran, eguneraturik:

> «Bi neskatxa gazte, apain eta lirain, txakur txiki polit bat berekin zutela zihoazen.
>
> Pernandok ikusi zituen eta esan zien:
>
> —Horixe da txakurtxo polita... Zer izen du?
>
> —Pitxita.
>
> —Putzik egiten al du ipurdia itxita?».



Anjel Alkain

Aktore eta umoregile, ETB1eko *Kontrako eztarria* saioa



Iturria: *Kontrako eztarria* ETB.

Umoreari buruz galdezka niri? Nik umorea egiten dut, bai, baina horretaz hitz egiten ez nago batere ohituta. Euskaldunak serioak garela... Ederki hasi zarete! Ez dakit serioak garen... zakar xamarrak bai, bagara. Nik kolore bat kentzekotan, grisa kenduko nuke...

Gure etxean beti entzun izan ditugu Fernando Amezketarraren pasadizoak eta Lazkao Txikiren ateraldiak, baina gu telebistarekin jaiotakoak gara! Martes y Trece, Benny Hill, Monty Python eta batzuen eta besteen esketxak... horrelakoak askotan ikusi ditugu. Gainontzean, aitonaren aldetik zer edo zer jasoko nuen, oso umoretsua baitzen. Txirritaren bertsoak hainbat aldiz entzunda nago. Baina barrea eragiten ez dit inork erakutsi, esate baterako; hori berezkoa da. Txikitatik aritu izan naiz jendea imitatzen, beti izan naiz txistezalea. Nire ustez, barreak ematen dio bizitzari zentzua. Umorea izan daiteke irribarrea, edo izan daiteke algara. Ni, adibidez, algara zalea naiz, nahiko eskandalosoa naiz barre egiten. Baina barrea zein algara, biak dira *earrak*. Algarak, barreari ezin eutsi izateak, bizitza luzatuko dizu, seguru. Behin, lagun batek kontatu zidan bere amak ospitale batean lan egiten zuela, eta urteen poderioz konturatu zela gaixoen artean gehien irauten zutenak umorea galtzen ez zutenak zirela. Seguru nago egia dela hori.

Orain *Kontrako eztarria* egiten ari gara ETB1en. Hasteko, lehen pausoa lan talde aproposa osatzea da, bakoitzak zer egin behar duen –eta zer ez duen egin behar–, jakitea. Nik bizitzan, oro har, nahiago dut egin behar dena taldean egin, dudarik gabe. Taldea osatzeko garaian, garrantzizkoa da pertsona positiboz inguratzea, pertsona umoretsuak, behar-beharrezkoa baita ideia barregarriak eta kuriosoak izatea. Proposatzen diren pertsonaiekin ere asmatu egin behar da: pertsonaia gertukoak izan behar dira, ikusleek erraz identifikatuko dituenak; nire iritziz, hor dago gakoa. Azkenik, lanari presioa kentzea dago, hau da, ez pentsatzea egiten ari garena munduko gauzarik garrantzitsuena dela. *Kontrako eztarria* egiteko garaian, taldea osatzerakoan, horiek denak kontutan izaten saiatu gara. Euskaraz aritzean, gainera, adin desberdin bakoitzarentzat esketxak eta pertsonaiak eskaintzea ere oso kontuan hartu behar da. Besterik da arrakasta izatea, edo ez. Euzkitzek esan izan du inoiz, ikusleak saioa ikusten bezain ondo –edo hobeto– pasatzen dugula, eta iritzi berekoa naiz. Askotan esaten diot lan taldeari: “Guk barre egiten ez badugu, ez dut uste jendeak egingo duenik” . Umoregileak, hasteko, bere buruari ere barre egiten jakin behar du.

Umorea generoa bertsoa

«Txikitatik erakusten zaizkigun jarrerak, interesak, gustuak, betebeharrak... diferenteak dira. Unibertso diferentetan bizitzeko hezten gaituzte neskak eta mutilak: gustu, interes, beldur... ezberdinak garatzen ditugu. Badakigu emakumeok eremu intimora mugatuta egon garela, diskretuak izaten erakutsi zaigu, gauzak ondo pentsatzen, ingurua zaintzen, ordenatuak eta arduratsuak izaten... Eremu pribatu horretan gure umore propioa garatu dugu, baina, publikoaren aurrera irteten garenean, ez daukagu publiko orokorrarekin konpartitzen dugun umore-koderik. Kontua da gizonezkoenak diren gauzak (umorea, kezkak, interesak... edozer) unibertsaltzat dauzkagula, eta emakumeen kontuak horixe iruditzen zaizkigula, emakumeen kontuak. Burusoiltzea gai unibertsala da, baina depilazioa emakumeen kontua. Zenbat aldiz kantatzen dugu burusoiltzeari buruz? Askotan!!! Eta depilazioari buruz? Oso-oso gutxitan». (Uxue Alberdi, sareinak.net-en)



Mariari. Eta neskaren erantzuna: «Piper egin dudalako». Orduan, Aitorrek: «Berdeak ala gorriak?», Aitorrek ez baitaki piper egiteak zer esan nahi duen, haren erantzun tolesgabeak irria dakarkio Mariari, eta huraxe entzuten dion jende guztiari. Edo Sagrario Aleman euskaltzainak Kike Amonarrizi kontatutako hura: «Behin, elkarrekin gertatu omen ziren Belaguan Martzillako San Bartolome herri-ikastetxeko ikasleak eta Altsasuko Iñigo Aritza ikastolakoak. Hantxe jolasean batzuk eta besteak, euskaraz altsasuar argiak. Horretan, Martzillako neska batek Altsasuko beste bati: *'¡Oye! ¿Vosotros sois de pago?'*, eta altsasuarrak: *'¡No! ¡Nosotros de Pago no, nosotros de Aritza!'*»… Nonahi sortzen baita umorea.

Oraingo umorea orain

2003an «Hain serioak al gara?» galderari erantzun nahirik abiatu zen Nagore Irazustabarrena kazetaria *Argia* aldizkarian ondu zuen artikuluan. Bertan, gurean umoreak duen presentziaz jarduten zuen Irazustabarrenak, nekazaritza girokotzat jotzen zuen ordu artekoa, ahozkoa. Idatzizkoari dagokionez, eskas genbiltzala zioen, Anjel Lertxundiren *Euskal umorearen antologia* (Erein, 1991) lanak bestelakorik erakutsiagatik ere. Umore modernoaz ari zen Irazustabarrena. «Ikus-entzunezko eta idatzizko umore nazionala» zuen hizpide, esanez irrati, telebista, antzerki-lan, liburu eta prentsan ari zela garatzen euskarazko umorea. (Irazustabarrenak, hala ere, umorea ez baina hizkuntza bera zuen kezka. Euskara estandarra aski ez eta euskara *eztandarra* behar genuela zioen: txisteak, pasadizoak, esamoldeak edo exagerazioa euskaraz sortzeko ahalmena).

Handik hona bidea egin du euskarak. Ahozkoan, hor dira beti euskararen erreserbako herriak, bizimodua euskaraz egiten dutenak eta umorea ere euskaraz bizi dutenak. Hor dira beti, bestalde, bertsolariak, aho biko hitzak noiznahi darabiltzatela, bateko ziri eta besteko adar jotze.

Irrati-telebistetan, berriz, horra *Kontrako Eztarria* eta, horra, hura baino lehen, *Hau ez da Finlandia!* eta *Wazemank*, adibidez, eta lehenago, hortxe *Pailazoak*, *Txokolatex*, *Txiskola*, *Sorginen laratza*… Bestalde, hortxe Anjel Alkain eta gainerakoen *Oilategia* ere, Euskadi Irratiko Faktoria saioan. *Kontrako Eztarriaz* denaz bezainbatean, bertako buruetako bik, Aitziber Garmendiak eta Iker Galartzak, umorearen bidetik jo dute antzerkian, eta *Ondoko hilobiko gizona* dute taularatu berri. Antzerkian bertan ere ez dira gutxi umoretik jo dutenak; Azpeitiko Antzerki Topaketak beti du iturri horretatik. Ipar Euskal Herrian, horra Antton Luku, Pantzoa Hirigarai, Mattin Irigoien ere. Historiari begira, bestalde, Jean-Batiste Coyosek Zuberoako ipuin irringarrien bilduma argitara emana du aurten berean *Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri* liburuan. Euskarazko prentsan, egunero, horra Antton Olariaga, umore grafikoaren arloan luzaro erreferente duguna, eta, haren ildoan, Asisko Urmeneta eta Patxi Huarte, beste zenbaiten artean.

Euskaldunak serioak? Ba ote? «Denek umorea maite dugu, are gehiago ironia, hau merkeago baita, askazi hurbila duen trufañoa bezala», Jean-Louis Davantek arestian aipatu Coyosen lanari egin dion sarreran dioen moduan. Denok maite dugu umorea. Aro digitalean, berriz, hainbat txiste eta jolas dira aukeran sarean. Horra, adibidez, izparringia.net, euskara eta umorea lotzen dituen webgunea. ■

FELICE

Goiatz Labandibar
Idazlea



Felice jarri zioten gurasoek izena. Zoriontsu izan zedin.

Eta izan zen ume zoriontsua Neustadten. Izan zen ume zoriontsua aitonaren tintategian koloreak nahasten uzten ziotenean. Izan zen ume zoriontsua Else, Ferri eta Antoinekin jostatzen. Izan zen zoriontsua familia osoa Berlinera joan zenean bizitzera eta han herri ttiki bateko bizimodutik hiri erraldoiko bizimodura ohitu zenean.

Felice irribarre ibiltari bat zen komertzio-eskolan lehen aldiz eseri zenean, liburuak atera eta irakasleari adi entzun zionean. Gurasoek ikasketak ezin zituztela ordaindu eta komertzio-eskola utzi beharko zuela esan ziotenean, bere buruari esan zion: «Felice jarri zizuten izena zoriontsu izateko, ez ahaztu!». Eta erabaki zuen, horren gustuko zuen komertzio-eskola utzi eta takigrafo bezala lanean hasi zelarik, hura ere zorionerako bide izan zitekeela. Eta izan zen. Takigrafo zenean eta baita Carls Lindström-en egiten ziren gramofonoak saltzen zituen marketing aditu bihurtu zenean ere.

Zoriontsu zen egun batean ezagutu zuen Franz. Gauza jakina da zoriontasunak edertzen dituela hazpegiak. Eta Felice eder-ederra zen egun hartan. Zoriontsu zelako. Franz ezagutu aurretik ere.

Bidaian zihoan, Berlindik Budapestera. Else ahizpa bisitatzera. Besarkatzera. Musu ematera. Masailak ferekatzera. Felice zoriontsu sentitzen zen bidaia hartan Pragan gelditu zen, Sophie lehengusina agurtzera. Eta Sophiek, Berlindik lehengusina iritsi zela ospatzeko, bazkaria antolatu zuen nebaren etxean, eta gonbidatu zituzten Sophieren lagunak. Eta Sophieren nebaren lagunak. Eta Felice izan zen mahaiburuan eseri zena, ohorezko gonbidatu gisa.

Praga euripean zegoen egun hartan. Eta Praga euripean izan daitekeen bezain malenkoniatsua zirudien Franzek egun hartan, Sophieren nebaren etxeko mahaian eserita. Eta akaso, zoriontasuna zer zen jakin behar edo nahi zuelako hurbildu zen Felice izeneko neska harengana.

Felicek irribarre egin zion Franz malenkoniatsuari. Eta euripean dagoen Pragak izan dezakeen xarma berarekin liluratu zen Franz neskarekin.

Egun hartatik bertatik, Franz Feliceri gutunak idazten hasi zen. Egunero. Erreinuaren Langileen Istripuen Aseguru Institutuko bulegoko idazmakinan idazten zituen batzuk, bulegoko errutinari lapurtutako momentuetan. Edo eskuz idazten zuen, gauetako ilunpeetan. Kexatzen zen bere bizimoduaz. Administrazio publikoan egiten zuen lanaz. Osasun eskasaz. Aitaz. Gustuko etxerik ez harrapatzeaz. Judu izateaz. Idazle izate hutsetik ezin bizi izateaz. Lagunek haren idazlanak argitaratzeko zuten setaz. Bizitzaz. Txorkatila bihurritzeko nahita adokinatutako kaleez. Etxeko labeak ateratzen zuen soinuaz. Den-den-denaz. Soilik eskuz edo makinaz idatzitako «maite zaitut, Felice» haiek salbatzen zituzten Franzen gutunak itzaletatik.

Baina Franzek ez zuen lortzen Felice zoriontsu ez izatea. Franzen penak Felicen izenaren hizkietan irristatzen ziren. Eta beti alaitasuna zerioten gutunekin erantzuten zion.

Egun batean, zoriontasunaren zama bere teilatuan zegoela irakurri zuen Felicek, Franzek Pragatik Berlinera bidalitako gutun batean: «Ongi pentsatu nirekin ezkondu nahi duzun. Pentsatu egunero bulegora joango naizela lanera. Eta etxera itzulita, nire logelan giltzapetuko naizela ordutan zehar idaztera. Pentsatu zurekin gutxi egongo den senar baten emazte izan nahi ote duzun. Edo ez».

Horixe idatzi zion, beste hitz batzuk erabiliz. «Nirekin izango duzun bizimoduak ez du kalean paseoan pozik ikusten dituzun bikote horienaren antzik izango, baizik eta komentuko bizimoduarena, gizon gaixoti, isil eta zoritxarreko baten bazterrean». Horiexek izan ziren Franzen hitzak.

Eta ez, Felice ez zegoen prest zoriontsu ez izateko. Berak Felice izaten jarraitu nahi zuen. Gurasoek izen hura jarri zioten zoriontsu izan zedin. Eta berak zoriontsu izaten bakarrik zekien. ■

Osasuneko App-ak gure bizitzaren zati bihurtuko dira

Pablo Arriola
Farmazialaria

Teknologia abiadura izugarrian ari da sartzen gizartean eta gure bizitza-ohituretan, eta ez dago atzerabueltarik. Gaur egun, ez zaigu arraroa iruditzen pertsona bat kale erdian «gelditua» aurkitzea, bere smartphone edo telefono mugikorra begiratzen, edo *whatsappeatzen*. Onerako edo txarrerako, horixe da errealitatea.

Teknologia, ondo erabiltzen badugu, funtsezkoa izan daiteke, eta garrantzia irabaziz joango da. Epe motzera, ezinbestekoa bihurtuko da osasuna hobetu eta kontrolatzeko, eta epe luzera, berriz, osasun-sistemetan aurreztea ahalbidetuko du.

Bi urtean, bost aldiz handiagoa izango da osasunaren alorreko App-en (smartphone nahiz tabletetarako aplikazioen) kopurua, eta haiek funtsezko zeregina izango dute gure osasuna kontrolatu eta sustatzeko eta gure bizi-kalitatea hobetzeko lanean.

Osasun-aplikazioetarako sarrera

2013ko ekainean, 46.000 osasun-aplikazio baino gehiago zeuden. Haietatik, 23.682 ez zeuden osasuna hobetzera zuzenduta; helburu hori zutenen artean, ordea, 16.275 aplikaziok erabiltzailea zuten jomuga, eta 7.407k, berriz, osasuneko profesionalak. Aplikazio horien guztien erdia baino gehiago ez ziren 500 deskargatara iritsi, eta bost aplikaziok osasuneko aplikazioen deskargen %15 osatzen zuten.

Egungo kalkuluen arabera, sortutako aplikazioen kopurua bost aldiz handituko da datozen bi urteetan. Eta aurreikuspenek diote 500 milioi pertsona baino gehiagok erabiliko dituztela. Gaur egun, osasunarekin lotutako 90.000 aplikaziotik gora daude.

The App Date-k adierazi duenez, erabiltzaileek gehien deskargatzen dituzten aplikazioen artean hirugarren postuan daude osasunekoak. Gogokoenak jokoak dira, batez ere gazteen artean.

Ipsos-en *Socialogue* txostenaren arabera, Espainiako biztanleen %26k osasuneko eta ongizateko aplikazio mugikorrak erabiltzen ditu. Hala, Europako herrialdeen artetik Finlandia baino ez dago aurretik; bertan, %28koa da proportzioa.

Aplikazioen kalitatea arautzea

Nork arautzen ditu osasuneko aplikazioak? Aplikazioen sorkuntza izugarri handituz doan arren, ez dugu erritmo berean aurrera egiten erakunde kualifikatu bat eratzeari dagokionez, zeinaren ardura izango bailitzateke osasuna hobetzen eta kontrolatzen lagundu dezaketen aplikazioen kalitatea ziurtatzea eta horiek zientifikoki ebaluatzea.

Osasuneko aplikazioen fidagarritasuna modu ofizialean arautzeko erakunderik ez dagoenez, arriskuak sortzen ari dira: zenbait aplikaziok zehatzak ez diren emaitzak eskaintzen dituzte, edota osasun-aholku pertsonalizatu desegokiak.

Alderdi horretatik, ezinbestekoa iruditzen zait araudi propioa izatea, aplikazio batek erabiltzaileen osasuna eta bizi-kalitatea benetan hobetzeko –inolako iruzur eta engainurik gabe– beharrezko baldintzak ote dituen zehaztuko duena. Ezin dugu ahaztu kasu zehatz honetan osasuna dugula hizpide, eta horrek bai gure bizitzan bai munduko milioika pertsonen bizitzan eragina duela. Ondorioz, argi geratu behar da osasuneko aplikazioek ez dutela zerikusirik joko, produktibitate, musika edo sare sozialen inguruko aplikazioekin.

AEBetako adibidea dugu, non Elikagai eta Botiken Administrazioak (Food and Drug Administration) bere irizpideen

arabera kalitatezkoak diren aplikazioen gida osatu baitu. Espainian, ostera, Andaluziako Juntak aplikazioen kalitate eta segurtasunari buruzko estrategia garatu du, eta «CalidadAppSalud» sortu du, pazienteei seguruak eta fidagarriak diren aplikazioak gomendatzeko.

FarmaApp, farmaziako aplikazioen gida

Botikaria naizen aldetik, interesgarria iruditu zait azkenaldian sortutako zenbait osasun-aplikazioren potentzial handia ezagutaraztea, eta horien inguruko gida bat sortu dut horretarako: FarmaApp Gida.

Hemen aurkituko duzu gida: **www.pabloarriola.com/farmaapp**

Farmazialariak eta osasuneko profesionalak gida hau erabiltzera animatu nahi nituzke, beren bezero edo pazienteen osasuna eta bizi-kalitatea hobetzen lagundu baitezake. Era berean, tratamenduak hobeto jarraitzeko eta, teknologia berriak baliatuta, farmazia-arreta osoa emateko ere lagungarria izan daiteke.

FarmaApp gida sortzeko ideia honela jaio zen: ikusi nuen, aplikazio baliagarri ugari sortu arren, ahaztu eta baztertuta geratzen zirela horietako asko. Ez diegu etekinik ateratzen, eta ez ditugu ondo hedatzen. Twitterreko @farmaapp kontuaren bidez aplikazio bat egin nahi nuen; ez nekien, ostera, ez zer motatakoa izango zen, ez nola egin behar nuen, eta horiek ikusi eta gomendatzen hasi nintzenean jabetu nintzen farmazialariek eta medikuek ez dituztela aplikazioak gomendatzen. AEBetan, berriz, errezetatzen hasi dira. Horren eraginez, erabilgarriak eta osasunarentzat onuragarriak ziren osasun-aplikazioen inguruan informatu, ikertu eta horiek biltzeari ekin nion, bateko, farmazialariek botikan errezetatzeko, eta, besteko, pazienteek erabiltzeko ohitura har zezaten lortzeko.

FarmaApp aplikazioak 30 aplikazio ditu oraingoz. Helburua ez da osasunerako aplikaziorik onenak jasotzea, baizik eta etekin handiena ateratzeko modukoak eta pazienteen osasuna edo bizitza-kalitatea hobetzen gehien lagundu dezaketenak biltzea. Kalitatearen eta osasunarentzako onuraren irizpideak aintzat hartuta, aplikazioak gehituz joango naiz, betiere ahaztu gabe gidaren asmoa farmazialariek farmazia-arretaren plus eta osagarri gisa erabiltzea dela.

Osasuneko aplikazioak aliatu handiak izango dira botika ugari hartu behar dituzten gaixo kronikoen osasuna nahiz beste egoera batzuetan daudenena kontrolatzeko. Smartphoneak eta tabletak erabiltzen dituzten 45-55 urte bitarteko pertsona ugari gaixo kroniko bihurtuko dira etorkizunean, eta bost eta hamar urte bitarteko epean, etekina atera ahalko diete aplikazioen aurrerapen teknologikoei. Osasun mugikorraren garapena geldiezina da, eta erabakigarria izango da etorkizunean, kontrolatzeko bai osasuna eta gaixotasun kronikoak, bai eta administrazioak aurre egin behar dion gastua ere.

Jarrain aurkeztuko ditudan aplikazioak, nire ustez, oso baliagarriak izan daitezke pertsona askorentzat:

- **MedsOnTime:** pilula-kaxa moduan balio du, eta, gainera, tratamendua hobeto jarraitzeko aplikazio gomendagarria da.
- **Mi farmacia abierta:** Faes Farmarena. Bertan, Espainiako farmazia guztien ordutegiak koordinatzen dira, guardiakoenak barne.
- **aempsCIMA**, Botiken Espainiako Agentziarena. Espainian baimenduta dauden botika guztiak eta bakoitzaren informazioa (erabilera-orriak ere) biltzen ditu.
- **Mi Asma:** GSK asma eta errinitisaren inguruko kontsultoreak garatutakoa. Polen, tenperatura eta hezetasunaren inguruko informazio eguneratua du. Asma kontrolatzeko test bat egiteko aukera ematen du.
- **Primeros auxilios:** lehen sorospenen inguruko oinarrizko ezagutzak dituen aplikazioa. Beti ernai egoteko eta larrialdi-egoeretan nola jokatu behar den jakiteko.
- **El mostrador de tu farmacia:** aplikazio honetan, linean dagoen guardiako farmazialari bat aurkituko duzu eguneko 24 orduetan, eta edozein kontsulta egin ahalko diozu.
- **Mi Embarazo al Día:** 400.000 deskarga baino gehiago ditu, eta haurdunaldia egunero jarraitzeko oso aplikazio gomendagarria da.
- **Prueba de Audición Siemens:** aplikazio honekin, entzumen-galerarik izan dezakezun zehazteko test bat egin dezakezu.
- **IntolerApp:** aplikazioaren bidez, arrautzari alergia dioten eta gluten eta laktosarekiko intolerantzia duten pertsonek elikagai-produktu bat har dezaketen ikusiko dugu.
- **Antirronquidos:** loaren kalitateari eragiten dion arazo oso arrunta da erlastura, eta loa eragozten duen apnea ekar dezake ondorio gisa. Zurrungak txikiak direnean, praktikoa eta baliagarria izan daiteke aplikazioa.

Baina aurreko paragrafoetan aipatu dugun bezala, hau guztia hasi baino ez da egin. ISDINek **FotoSkin** aplikazioa sortu berri du Sergio Vañó medikuaren laguntzarekin. Aplikazio horren bidez, eguzki-erradiazioak, orinak eta balizko melanomak kontrolatu ahalko dituzte erabiltzaileek. Azaleko minbizia prebenitzeko tresna oso baliagarria da. Aplikazio hori ere FarmApp Gidan sartuko dugu.


Osasuneko aplikazioak, gure bizitzaren zati bihurtu ez ezik, geratzeko etorri dira; atera iezaiezu etekina! ■

Puntuazioaren oinarrizko arauak (3): esaldi barneko puntuazioa (eta 2)

Juan Garzia
Idazlea

Artikulu hau aldizkariko 84. zenbakian (26. eta 27. or.) argitaratutakoaren jarraipena da. Lehen partean, besteak beste, galdegaiaren eta aditzaren arteko komaz, mintzagairen osteko komaz eta mendeko perpausetako komaz jardun zuen egileak.

Oraingo honetan, aditzaren osteko komaren presentzia eta puntuazio-marka horren bestelako erabilerak (zerrendak eta tartekiak) azaltzen ditu.



Aditzaren atzetik koma noiz ez (hizpideabarra)

Galdegai hitzak ongi islatzen du galdegaiak galderekin duen lotura. Galderetan, izan ere, galde-hitzak erabiltzen ditugu maizenik, hots, galde-izenordain batzuk, eta haien erantzuntzat jo daitezke galdegai asko, galdera esplizitua izan (elkarrizketetan) zein ez (narrazioan edo azalpenean): *zerk/nork, zerk/nork, zeri/nori, zerekin/norekin, norentzat, zergatik, non, noiz, nola…*


Galdera-galdera **galde**-hitzarekin hasten da. Mintzagairen bat joan daiteke aurretik, baina esana dugu periferikoa dela mintzagaia, eta, hori dela eta, galdera-intonazioak ez du hartzen hura:

> *Lanik egin gabe,* NOLA aberastu zara?

Orain arte, aditzez amaitu ditugu esaldiak, baina badakigu ez dela hori, ez kasu bakarra, ez ohikoena ere:

> *Lanik egin gabe,* NOLA bete zara leporaino diruz?
>
> NOLA aberastu zara lanik egin gabe?
>
> NOLA bete zara leporaino diruz lanik egin gabe?

Aditzaren segidan datozen sintagmak horrelaxe agertuko dira galderazko esaldi



horren isla den baieztapenean ere, hots, komarik gabe:

POKERREAN JOKATUZ bete naiz leporaino diruz.

POKERREAN JOKATUZ aberastu naiz lanik egin gabe.[1]

Aditzaren atzetik koma noiz bai (gehikuntza)

Aditzaren segidan komarik gabe doazen osagaiak (hizpideabarrak) hizpidearen parte dira, hots, galdera bakar berean halaxe letozkeenen parekoak:

NORA doa osaba udan?

INDIARA doa osaba udan.

Galdera bikoitza bada, berriz (bi galdegai), etenez eman beharrekoa da:

NORA joango da osaba? NOIZ (joango osaba hara)?

Galdera horren erantzunari legokiokeen baieztapenak ere berdin markatuko du eten hori:

INDIARA joango da osaba. UDAN (joango da osaba hara).

Hala ere, galdegaia ez den guztia (hizpidea) errepikatua denez bigarren esaldian, ez da beharrezkoa berriro aipatzea, eta, hala, hizpide horren zati bat isil daiteke, eta puntuazioa ere arindu:

INDIARA joango da osaba; UDAN joan ere.

Eta, aditza bera ere errepikatua denez, hurrengo pausoa ere eman daiteke norabide berean:

INDIARA joango da osaba, UDAN.

Horrela komaz gehituriko bigarren galdegai horri *gehikuntza* deritzogu. Ikusi dugun bezala, beste galdegai bat izanik, (aurrekoaren hizpide bereko) beste esaldi baten balioa du esanahiz gehikuntzak.

Terminologia gorabehera, bi esaldi mota hauek bereiztea da kontua:

Indiara joango da osaba udan. [*NORA joango da osaba udan?*]

Indiara joango da osaba, udan. [*NORA joango da osaba? NOIZ?*]

Kanpoan geratzen direnak

Hemen komez ari ginelarik, berariaz ez ditugu kontuan hartu puntuazio-marka beraren beste bi erabilera:

- **Zerrendaketak**

  Bi osagaitik gorako juntaduretan, juntagailuaren balio bera du komak:

  a eta b

  a, b eta c

  a, b, c eta d

  Bi osagaitik gorako juntadurek, aztertu ditugun koma soilek ez bezala, ez dute inolako debekurik nonahi agertzeko. Izan ere, esaldiaren osagai gehienek dute aukera bi, hiru nahiz gehiago juntatu eta bat balira bezala jokatzeko esaldiaren osaeran. Aurreko ataletan eman ditugun debekuak, beraz, ez dagozkie juntadura-komei.

- **Tartekiak**

  Tarteki mota batzuek, tarteki-marka espezializatuak hartu beharrean (parentesiak edo marra parea), koma parea hartzen dute funtzio berean, hots, ez bi koma soil, baizik eta, marra pareek edo parentesiek bezala, bata bestearekin parea osatzen duten bi koma.

  Tartekiei dagozkien koma pareak ere, bada, ager daitezke esaldian, aurreko ataletan arautu ditugun koma soilez gainera (debeku duten kokaleku bakarra galdegaiaren eta aditzaren artekoa da, adierazi dugun moduan). Mendeko perpaus mota batzuetan ere koka daitezke tartekiak, zenbait eskuin-joskeratan, eta mendeko perpausaren hasiera markatzeko elementuren bat ageri denean bereziki:

  Iruditu zaio [*ezen*, gaztetxoa izanik oraindik, zentzatuko dela gerora].

  ... [*zeren*, gaztetxoa izanik oraindik, ...]

  ... [*nahiz (eta)*, gaztetxoa izanik oraindik, ...]

  ... [*baldin (eta)*, gaztetxoa izanik oraindik, ...]

  ... [*baizik (eta)*, gaztetxoa izanik oraindik, ...]

  ... [*zeina*, gaztetxoa izanik oraindik, ...]

Tartekien kontuak, ordea, beste adar batzuetara eramango gintuzke, eta ez dugu hemen lekurik. Bertsolariak bezala diogun: *Ai Jenobeba, esan gabeak asko geldi-tzen zaizkizu…*

Hurrengo batean, agian. ■

1. Nire terminologian, *hizpideabar* funtzioa betetzen dute sintagmek hala kokaturik. Hiztunak hizpidetzat hartzen dituenak biltzen dira hor. Galde/erantzuten den informazio berri bakarra galdegaiak adierazten duena da. Aditza eta mintzagaia ere hizpidearen parte dira (hizpidea: mintzagaia+aditza+hizpideabarra; alegia, galdegaia ez beste guztia).

Xakea eta itzultzeko estrategiak

Xabier Yurramendi
Justizia Administrazioko hizkuntza-normalizazioko teknikaria

Gero eta garbiago daukat xake-jokoa eta itzultzeko estrategien arteko lotura estua dela. Xakea zientzia eta artea dela diote, eta itzultzea ere beste hainbeste dela esango nuke. Hori esan, eta zerbait gehiago esan beharko dut kontua xehatzen hasteko.

Xakeak pieza dinamikoak ditu jokoan aritzeko. Itzultzeko estrategia ere pieza dinamikoez baliatzen da testua osatzeko. Zer komunikatu nahi den, halaxe mugituko ditu piezak, mezua behar den bezala hartzailearengana iristeko. Galderagakoa hauxe da: euskarak, gaztelaniaren ondoan dagoenean, era estrategikoan mugitzen ditu piezak?

Pieza horiek hizkuntza-baliabideak dira. Gainera, pieza bakoitzak bere funtzioa betetzen du, eta itzultzerakoan beste hainbeste: zaldiak salto egiten badu, alfilak diagonalak zeharkatzen baditu... zer esanik ez, erlatiboak adjektiboaren funtzioa egingo du, helburuzkoak xede edo helburua adieraziko du... Piezaz eta funtzioez gainera, xakean posizioak du garrantzi handia. Eta itzulpenean ez gutxiago, informazio berriak edo ezagunak, mintzagaiak eta galdegaiak eta horien posizioak, estrategiarako joko handia eman dezakete.

Jakina, ondo dago xake-estrategia diseinatzea, baina taktika jakin batzuk erabili beharko dira estrategia hori gauzatu ahal izateko, eta taktika horiek aldatzen joango dira, etsaiaren jokoaren arabera. Ez al da gertatzen antzekorik hizkuntza batetik bestera itzuli behar dugunean? Zergatik jokatu behar du beti beltzak txuriak bezala? Ondo dago kontuan hartzea zer mugimendu egiten dituen, baina helburu bera lortzeko (gurean xake partida berdintzea!) taktika berbera erabili behar al dute pieza txuriek eta beltzek? Testuinguru berean dabiltza, eta pieza berberak baldin badituzte irteerako posizio berberean daude?

Nik esango nuke, zoritxarrez, euskarak gaztelaniaren aurkako joko horretan –ondo ulertzea nahi nuke, aurka esaten dudanean, itzultze-joko horretara bakarbakarrik mugatzen naizela–, defentsiban jokatzen duela. Beti dago pieza txuriak zer egingo duen zain, eta, horretarako, taktika berberak erabiltzen ditu askotan (xake-jokoaren teoriaren arabera, pieza beltzek simetria beti gordetzeak galtzea dakar). Kontuan hartu behar da, bestalde, gaztelaniak eta euskarak baliabide berberak izanda ere, euskararen estiloa eta gaztelaniarena oso bestelakoa dela. Gaztelaniak, agian, zaldiak aterako ditu saltoka; euskarak, berriz, polikiago joan beharko du, berez duen defentsa-estiloa erabili beharko du; agian, peoiak aurreratu, peoia baita azken lerrora iritsiz gero, partida irabaz dezakeena.

Pieza txuriek hasieratik abantaila duten bezala, gaztelaniak ere baditu bereak. Partida asko jokatu ditu gaztelaniak, eta euskarak ez hainbeste. Gainera, euskara beti egon da gaztelaniak zer egiten duen begira; gaztelaniarekin konparatuta partida gutxi jokatu arren, azterketa sakon bat egin behar du, baina beste hizkuntzek jokatzen dituzten partidei ere begiratu behar die. Zer estrategia erabiltzen dituzten; estrategia horren ildotik zer taktika zehatz dituzten arazoak gertatzen direnean...

Hizkuntza bakoitzaren piezak taula batean jarriz gero, ikus dezagun jokaldia egiteko (zaldia edo peoia mugitu), hizkuntzak zein koordenadetan mugitzen diren:

Gaztelania	Euskara
Hizkuntza prepositiboa da, eta adierazpenaren jarraikortasuna da bere ezaugarri nagusia.	Hizkuntza pospositiboa eta aglutinantea da.
Ordenamendu nahiko aldagaitza dauka.	Ordenamendu dinamikoa dauka, baina arazoak ditu sintagmen eta perpausen mugak markatzeko.
Gaztelaniaren aldaera formalak adierazpena modu txertatuan eta trinkoan emateko joera du.	Adierazpena zatikatzeko joera du, eta egitura lokabe edo txertatu arinekin aritzen da eroso.

Xakeak, dena den, teoriatik asko du; baina askoz gehiago praktikatik. Jar gaitezen jokoan. Xakearen antzeratsu, hiru zutabe ekarriko ditut hona, bata gaztelaniaz (pieza txuriak) eta beste biak euskaraz, bi estilo desberdinetan (pieza beltzak). Txuriek hasi ohi dute partida, eta beltzek erantzun. Berdin gertatzen da itzultzen hasten garenean. Erreferente bakarra ezkerreko zutabe zuria dugu.

Saiatuko naiz paragrafo horren analisia egiten, eta itzulpen-joko horretan zer estrategia eta, batez ere, zer taktika erabili diren argitzen:

(1) Conforme a lo determinado en el artículo 332 de la misma LECn, **(2)** las dependencias del Estado, Comunidades Autónomas, provincias, Entidades Locales y demás entidades de Derecho Público **(3)** no pueden **(3.1)** negarse a expedir las certificaciones y testimonios que sean solicitados por los tribunales **(3.2)** ni oponerse a exhibir los documentos que obren en sus dependencias y archivos, **(4)** excepto cuando se trate de documentación declarada o clasificada como de carácter reservado o secreto, en cuyo caso se dirigirá al tribunal exposición razonada sobre dicho carácter.	**(2)** Estatuaren, autonomia-erkidegoen, probintzien, toki-erakundeen eta zuzenbide publikoko gainerako erakundeen bulegoek **(3)** ezin diete auzitegiei ukatu, auzitegiok eskatu ziurtagiri eta lekukotzak luzatzea, ezta euren bulego eta artxiboetan dauden agiriak erakustea ere. **(4)** Salbuespena izango da agiriak legez adierazi edo sailkatuta egotea isilpeko agiri edo agiri sekretu gisa; halakoetan, auzitegiari zuzenduko diote izaera horren gaineko azalpen zioduna **(1)** (PZLb-ko 332. art.).	**(2)** Hainbat erakunderen bulegoek (Estatuaren, autonomia-erkidegoen, probintzien, toki-erakundeen eta zuzenbide publikoko gainerako erakundeen bulegoak) **(3)** ezingo diote uko egin auzitegiek eskatutako ziurtagiriak eta lekukotzak luzatzeari; ezta euren bulego eta artxiboetan dauden agiriak erakusteari ere. **(4)** Ukatzea izango dute, ordea, baldin eta eskatutako agiriok isilpeko agiri edo agiri sekretu gisa legez adierazi edo sailkatuta badaude. Kasu horretan, auzitegiari zuzenduko diote izaera horren gaineko azalpen zioduna **(1)** (PZLb-ko 332. art.).

a) Estrategiak:

• Gaztelania prepositiboa denez, mezua egitura daiteke paragrafo batean, etenik gabe. • Ordenamendu nahiko aldagaitza da. • Modu txertatuan eta trinkoan ematen du mezua.	• Euskara pospositiboa da, eta beharrezkoa du etenaldia, bestela ulergaitza izango da. • Ordenamendu dinamikoa du testuak. • Ulergarritasunaren mesedetan, modu txertatua eta trinkoa saihestu egiten da.

b) Taktikak: euskararen kasuan, antzeko estrategiak erabili badira ere, joko-estiloaren araberako taktikak erabili dira. Lau mugimendu aztertuko ditugu:

	Txuriak	Beltzak (Taktika 1)	Beltzak (Taktika 2)
MUGIMENDUAK	(1)Mintzagaia: legearen aipamena hasieran *(Conforme...)*	(1) Mintzagaia bukaeran, parentesi artean *(PZLb-ko 332. art.)*	(1) Mintzagaia bukaeran parentesi artean *(PZLb-ko 332. art.)*
	(2)Galdegaia: prepositiboa *(las dependencias...)*	(2) Galdegaia (pospositiboa) *(....bulegoek)*	(2) Galdegaia aurreratu eta parentesi taktikoa erabili *Hainbat erakunderen bulegoek (...)*
	(3)Aditza: bi aditz Adizlaguna oso luzea eta trinkoa baina bitan banatuta (*no pueden* 3.1 *negarse ni* 3.2 *oponerse*)	(3) Aditza: aditz nagusi bakarra Adizlaguna: behartuta dago auzitegia bi aldiz errepikatzera deklinazio desbedinekin eta bi nominalizazio erabiltzera (*ezin diete auzitegiei ukatu ... tzea*)	(3) Aditza: aditz nagusi bakarra (Ez da beharrezkoa *auzitegia* bi aldiz errepikatzea (*ezingo diote uko egin...tzeari*).
	(4) Adizlagunari jarraipena ematen dio: katea luzatu eta trinkotu egiten da. *(excepto cuando.... en cuyo caso)*	(4) Adizlaguna esaldi nagusi bilakatu da (salbuespena): Informazioa aurreratu egiten da, baina katea luzatu eta trinkotu egiten da *(Salbuespena izango da...-tzea... gisa... halakoetan)*	(4) Adizlaguna bi esaldi nagusi bilakatu dira: batetik, aurreko esaldiarekin lotuago dago, (ukapen-formulazioa bertan dago), eta, bestetik, lotura egingo duten lokailuaren bidez eta baldintzazko iragartze-partikularen bidez, katea eten egiten da, baina mezua argiago iristen da *(Ukatzea izango dute, ordea... baldin eta... Kasu horretan...)*




Konklusioa. Nik bi joko-estilo horietatik bigarrena aukeratuko nuke, posizio estrategikoak hobeto zaintzen dituelako eta taktika aldetik malguagoa delako. Oso kontuan hartu: gaztelaniaren eta euskararen egiturak eta bilakaera elkarren artean oso ezberdinak direnez, estiloak ere ezberdinak izan behar direla. Horrez gainera, euskara diglosia-egoeran izanik, oso handia da gaztelaniaren interferentzia neurrigabeen arriskua. Dena den, bakoitzak jokatzeko bere estiloa du, eta hori errespetatu egin behar da. ■

Hitz gezidunak



		* DEITURA Adituak, jakintsuak	→		Guraso arra Karate-kirolariak		Diru zahar Titanioa		Emakume izena Emakume izena		Komuneko garbiketa-ontzia
		↓		↓		↓		↓		↓		↓
		Europako hiri santu Joan zaitez!	→									
* IZENA Espetxea	→		Ordezko hitza Ura 100ºC-ra heldu	→				Bizkor Pl. labore hautsa	→			
↓		↓		↓		Arnas ezak hilak Gizon izena	→					
H_2O Arazteko planta	→			Nazioarteko garraioetan Egoskin mota	→	↓		Bokala 1. eta 4. bokalak	→	Bokala Ile	→	
↓				↓				↓	Bokalik gabeko beita Oinaze	→	↓	
Ikastaroaren hasiera 602	→		Jakintza mota 499	→					↓			
↓			↓	Ipar EHn, era Bokala	→			49 Iodoa	→			Bokala
Arrazak	→			↓		Ipar EHn, kiratsa	→	↓			↓	


Goitik behera



Aurkitu beharreko hitz bakoitza letra bat gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondoko hitzaren anagrama da.

1. Zazpigarren hilabetea.
2. Zirkulu-formako objektua.
3. Abandonatua.
4. Bildutako labore multzoa.
5. Listua, txistua.
6. Elkartu.
7. Debeku erlijiosoa.
8. Besaulkia.
9. Zor bat hartzeari utzi.

SOLUZIOAK



Hitz gezidunak

Goitik behera

1. Uztaila 2. Uztaia 3. Utzia
4. Uzta 5. Tua 6. Batu
7. Tabua 8. Butaka 9. Barkatu

IVAPen argitalpena:


Comunicación electrónica.

Propuestas para mejorar la calidad de los textos en pantalla



http://www.ivap.euskadi.net/r61-s20001x/eu/s20aWar/novedadesJSP/s20aVerDetalleDesdeMail.do?s20aNuevoIdioma=eu&idValorSeleccionado=564X0

IVAPeko webgune berria
www.ivap.euskadi.net



Tresna mugikorretarako egokitua

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ

zure etxean doan jaso nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

IVAP

Donostia-San Sebastián 1
01010 Vitoria-Gasteiz
administrazioaeuskaraz@ivap.es

Abizenak _____ Izena _____

NAN/IFZ/ENA _____

Helbidea _____ Posta-kodea _____

Herria _____ Probintzia _____

Mugikorra _____ e-posta _____

Interesdunak ematen dituen datuak prozeduran edo ekintzan aurreikusten diren helburuetarako baino ez dira erabiliko, hau da, *Administrazioa Euskaraz* aldizkaria bidaltzeko eta horren harpidetzak kudeatzeko. Datu horiek, inolaz ere, ez zaizkie emango beste batzuei, interesdunak horretarako baimenik eman ez badu. 15/1999 Lege Organikoak ezartzen duena betez, datuak eman dituenak eskubidea du datuak noiznahi ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko eta haien aurka egiteko. Horretarako, eskutitz bat bidali beharko zaio IVAPeko zuzendariari honako helbide honetara: Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.